



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 2a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-23/CCO-00001. 2020ko Nafarroako toki-sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-23/CCO-00001. 2020ko Nafarroako toki-sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2020ko Nafarroako toki-sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea 2020ko Nafarroako toki-sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukia jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2020ko Nafarroako toki-sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|--|
| <p>I. Sarrera (4. or.).</p> <p>II. Helburuak, norainokoa eta mugak (4. or.).</p> <p>III. Konklusioak eta gomendioak (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. Konklusioak (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2. Gomendioak (9. or.).</p> <p>IV. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1 Antolaketa-egitura (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege neurriak (13. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">IV.3. 2020an onetsitako araudia (13. or.).</p> <p>V. 2020ko ekitaldiari dagozkion fiskalizazio jarduketan laborpen-oroitidazkia (15. or.).</p> <p>VI. Toki sektore publikoaren finantza egoera (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Diru-sarrerak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Gastuak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Adierazleak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. COVID-19aren eragina (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak (23. or.).</p> <p>VII. Kontratazio administratiboa (25. or.).</p> <p>VIII. Kontu-ematea eta aurrekontuen onespina (28. or.).</p> <p>IX. Barne kontrola eta kontu-hartze organoek egindako eragozpen-oharrak (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.1. Eskatutako informazioa igortzeko bete-beharra betetzea (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.2. Barne kontrola (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.3. Eragozpen-oharrak (31. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IX.4. Diru-sarreraren arloko anomalia nagusiak (32. or.).</p> <p>X. Konparazio-azterketa (33. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">X.1. Nafarroako udalen arteko konparazioa biztanleria-tarteen arabera (33. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">X.2. Nafarroako udalen, EAEkoen eta Estatu-koen arteko konparazioa (33. or.).</p> <p>1. eranskina. Toki entitateetan aplikatzekoa den araudia (37. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">2020an onetsi eta Nafarroako toki sektore publikoan aplikatzekoak diren arau nagusiak (37. or.).</p> |
|---|--|

2020ko ekitaldian Nafarroako toki sektore publikoan aplikatzekoak diren arau nagusiak (38. or.).

2. eranskina. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoera 2020an.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txosten hau egin da, Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betetzeko, haren 350.2 artikulua ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero bidaltzea Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari Kontuen Ganberak Nafarroako toki entitateen esparruan egin dituen fiskalizazioko eta kontroleko jarduketan berri ematen duen laburpen-oroitidazkia.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (TOFL) ezartzen du zein epe dituzten toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onetsi eta Gobernuari bidaltzeko. Bada, kontuan hartuta epe horiek eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna, ulertzekoa da 2020ko ekitaldiari buruzko txostena lehenago egin ezin izana.

Txostenarekin batera, gainera, bi eranskin daude, honako hauek biltzen dituztenak: Nafarroako toki entitateetan 2020an aplikatzekoa den araudia, eta toki sektore publikoaren 2020ko finantza egoerari buruz Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak (TADZN) egindako txostena.

Lana 2022ko azaroan eta abenduan egin du auditoretzako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak ematen dizkiegu Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko eta Nafarroako toki entitateetako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosteneko diru kopuruak biribildu egin dira zentimorik ez agertzeko. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez biribildutako balioen gainean.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lan honen helburuak hauek izan dira:

- Ganbera honek Nafarroako toki entitateen esparruan 2020ko ekitaldiari buruz egin dituen fiskalizazio jarduketak laburbiltzea.
- Nafarroako toki entitateen 2020ko finantza egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.
- Toki entitateek ekitaldi horretan egindako kontratazioa aztertzea.
- 2020ko jarduera dela eta toki entitateetako kontu-hartzailetak diru-sarreraren arloan azaldutako anomaliak eta eragozpen-oharrak aztertzea.
- Adierazpen multzo bat harturik, konparazioa egitea biztanleria-tarte desberdinetako Nafarroako udalen artean, bai eta horien eta EAEko udalen artean eta Estatuko gainerakoen artean ere.
- Toki sektore publikoaren kudeaketa hobetzeko gomendioak egitea.

Lanaren norainokoak toki entitateen 2020ko ekitaldiko kontu orokorra hartzen du; honako hauek osatzen dute kontu hori:

- a) Toki entitatearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoena.
- b) Merkataritzako sozietateena, horien kapitala oso-osorik kasuko toki entitatearena bada.
- c) Eranskinak.

Hauek ere aztertu dira: Nafarroako toki sektore publikoaren 2020ko finantza egoeraz Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena, eta zuzendaritza nagusi horrek kudeatzen duen Toki Entitateen Erregistroko datuak, bai eta Kontratazio Publikorako

Batzordearen mendeko Kontratuen Erregistrotik lortutako informazioa ere. Aztertu dira, halaber, aipatu ekitaldiari dagokionez Ganbera honek eman dituen fiskalizazio txostenak, eta barne kontrolari eta eragozpen-oharrei buruz Ganbera honek informazioa eskatutakoan toki entitateetako kontuhartze organoek eman dituzten erantzunak.

Gure lanerako muga bat izan da informazio ekonomiko-finantzariorik eta aurrekontukorik ez edukitzea 2020ko ekitaldiko beren kontu orokorra edo aurrekontuaren likidazioa Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari 2022ko apirilaren amaieran bidali gabe zeuzkaten toki entitateei buruz; honako hauek dira, hain zuzen:

- 272 udalerrietatik 12: Arellano, Arguedas, Eratsun, Ezkurra, Goñi, Imotz, Itzaltzu, Olazti, Orkoién, Saldias, San Martín Unx eta Zuñiga. Udalerri horiek 9.586 biztanle dituzte, guztira; alegia, Nafarroak 2020ko urtarrilaren 1ean zituen biztanleen ehuneko 1,45.

- 346 kontzejuetatik 68: Aizpun, Albiasu, Antzin, Ardatz Eguesibar, Arrieta, Astitz, Asterain, Azparren, Biotzari, Zizur Txikia, Eraso, Estenotz, Etsain, Etxaleku, Galdio, Gazolat, Goldaratz, Goñi, Igoa, Ihaben, Inbuluzketa, Intza, Iragi, Iruñela, Irurre, Itsaso, Iturgoien, Jauntsarats, Labeaga, Larraia, Larraiotz, Latasa, Lerate, Lintzoain, Lizarragabengoa, Lizaso, Mendilibarri, Mezkitz, Muetz, Amunarritz, Muniain Gesalatz, Murugarren, Muskitz, Nagore, Narbarte, Nuin, Oderitz, Oloritz, Orondritz, Otsakain, Otsakar, Oskotz, Paternain, Saigots, Getze Galar, Saragueta, Sorauren, Untziti, Undio, Untzu, Urdotz, Uritz, Urritza, Hiriberri Artzibar, Billabeta, Zarikegi, Zarrantz, Zurukuain. Kontzeju horien biztanleria 7.580 pertsonakoa da. Nafarroako guztizko biztanleriaren ehuneko 1,15 egiten du, eta kontzejuetako biztanleriaren ehuneko 18,14.

Nabarmentzekoa da Zizur Zendeako zortzi kontzejuetatik zazpi ez dutela konturik eman; guztira 3.810 biztanle dituzte.

- 83 mankomunitate eta batasunetatik 11: Burgi, Bidankoze eta Gardeko Udal Batasuna, Faltzesko eta Miranda Argako Udalerrietako Administrazio Zerbitzuen Batasuna, Errege Bardeako Komunitatea, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren kudeaketarako Mankomunitatea, Aberin-Arellano-Morentin Langileriaren Mankomunitatea, Ezka-Zaraitzuko Hondakin Solidoen Mankomunitatea, Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea, Erriberri aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Araxesgoieneko Mankomunitatea, Euskara kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea eta Orreaga Kirol Mankomunitatea.

Bestalde, komeni da zehaztea finantza egoeraren azterketa horretan toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrekontuetako datu bateratuak erabili direla funtsean, nahiz eta, zenbait alderdiri buruz aurkezten den informazioan, sozietate hauek ere sartu diren: Iruñerriko Zerbitzuak SA (SCPSA), Servicios Técnicos Mancomunados SLU (Sertecma) eta Servicios de la Mancomunidad de Montejurra SA (SMSA). Zorpetzearen azterketan bai sartu dela udal eta mankomunitateen menpeko sozietate guztien baterakuntza. Fundazio publikoak eta partzuergoak, berriz, ez dira sartu inongo baterakuntzatan.

Nahiz eta informazio faltaren ondorioz norainokoak muga hori izan duen, uste dugu gure lanean lortutako konklusioak, datu horiek eduki izan bagenitu ere, ez lirakeela oso desberdinak izanen.

III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

III.1. KONKLUSIOAK

Honako hauek dira 2020an toki sektore publikoak izandako antolamenduari, fiskalizazioari eta finantza egoerari buruzko konklusio nagusiak:

Toki sektore publikoaren osaera 2020an

Toki sektore publikoak 701 toki entitate biltzen ditu: 272 udal, 346 kontzeju, 61 mankomunitate eta udalen 22 batasun. Toki entitate horiek 118 menpeko entitate sortu dituzte zerbitzuak emateko, eta 17 partzuergotan parte hartzen dute.

Ganbera honek behin eta berriz adierazi du Nafarroako egungo udal antolaketa arrazionalizazio falta dagoela. Arazo horrek, bada, bere horretan dirau, Nafarroako udalerrien biztanleria-dimentsio murriztarekin batera. Kontu horiek eragina dute baliabideen horniduran, bai eta eskumenak kudeatzeko administrazio egitura egoki eta nahikoaren gabezia ere. Ondorioz, zerbitzu publiko eraginkor eta kalitatezkoak ematea zailtzen dute.

Horri dagokionez, 2019an Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi zen, helburutzat duena toki mapa eraldatu eta finantzaketa sistema berria ezartzea, behar diren arauak onetsita. 2020an ez zen halako araurik onetsi, eta eskualdeak sortzeko ekimena abiarazteko ezarritako epea amaitu zen. 2022an onetsi dira finantzaketa sistema berria taxutzen duten hiru foru legeak.

Kontuen Ganberak 2020ari buruz egindako fiskalizazio lanak

Ganbera honek finantza- eta legezketasun-fiskalizazioa egin zuen Iruñeko Udalaren 2020ko jarduera ekonomiko-finantzarioari buruz. Fiskalizazio horizontala ere egin zuen Jurramendiko Mankomunitatearen eta Lekunberri, Lodosa, Ribaforada eta Zangozako udalen langile-kontratazioari buruz (2015-2020), eta txosten bat, Urdazubiko Udalak 2020ko ekitaldian gomendioak bete-tezari buruz.

Horrez gain, fiskalizazio operatiboko zenbait txosten egin ditu 2020ko ekitaldia denbora-norainokoaren barruan dutenak: "Lekunberriko Udalaren ur hornikuntza eta saneamenduaren zerbitzua" (2017-2020), "Etxeetako eta saltokietako hondakinak, nola hobetu administrazioen arteko koordinazioa kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoa lortzeko" (2020), eta "Administrazio elektronikoren ezarpena Nafarroako 8.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udaletan" (2020-2021).

Toki sektore publikoaren finantza egoera 2020an

Toki entitateek eta menpeko erakunde autonomoek, oro har, 2020an 855,31 milioiko diru-sarrerak lortu zituzten, erdiak transferentzien bidez eta ehuneko 44 tributu-sarreraren bidez. Gastuak 799,18 milioikoak izan ziren, eta ehuneko 81 funtzionamendu gastuak dira, batez ere langile-gastuak (ehuneko 39) eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindakoak (ehuneko 32).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, guztizko diru-sarrerak eta gastuak hurrenez hurren ehuneko lau eta ehuneko hamar murriztu ziren. Bilakaera horretan zerikusi handia izan dute COVID-19ak ekarritako osasun, gizarte eta ekonomia krisiaren ondorioek eta krisiari aurre egiteko hartutako neurriek.

Diru-sarrera arruntetan, jarduera ekonomiko eta sozialarekin zuzenean lotutakoek, hau da, tasa eta prezio publikoek eta zeharkako zergek, jaitsiera nabarmena izan dute, guztira 26,60 milioikoa. Murrizketa hori hein handian konpentsatu dute jasotako transferentzia arrunt handiagoek, tartean COVID-19arekin berariaz lotutako 13,13 milioiek. Hala, bada, diru-sarrera arrunt guztizkoa ehuneko bat jaitsi da.

Gastuei dagokienez, erabakigarria izan da kultura arloko politikarako gastu arrunta 22,68 milioi murriztu izana, jarduera, ekitaldi eta jaiak egiteari uztearen ondorioz. Beherakada hori partez neutralizatu du beste gastu batzuen igoerak, eta horien artean langile-gastuak nabarmendu dira, 12 milioi handituta, halako moldez non funtzionamendu gastu osoak ehuneko bi murriztu baitira.

Emaitza gisa, toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrezki gordina eta garbia hurrenez hurren 138,84 milioikoa eta 108,51 milioikoa izan dira. Aurreko ekitaldikoaren oso antzeko zenbatekoak dira.

Beste alde batetik, kapitaleko diru-sarrerek eta gastuek jaitsiera oso nabaria izan dute, baina 2019ko kopuru handiak ohiz kanpokoak izan ziren. Izan ere, 2019ko ekitaldia azkena izan zuten 2017-2019 aldiko Toki Azpiegituren Planak eta 19/2018 Foru Legearen bidez onetsitako Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Planak.

Toki sektore publikoaren zor bizia, toki entitateak, haien mendeko erakunde publikoak eta haiek partaidetza osoa duten sozietate publikoak kontuan harturik, 137,74 milioikoa zen 2020 amaieran. Zenbateko hori diru-sarrerara arrunten ehuneko 18 da. Urrun dauka ehuneko 110eko legezko muga, eta 2019ko aldean ehuneko 23 murriztu da.

Bestalde, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 26,35 milioi hazi da, azken urteetako goranzko joerari eutsiz.

Aurrekontu-egonkortasun eta finantza-iraunkortasunaren alorrean, arau fiskal indardunak bete dira, eta pandemia dela eta etendakoak ere bete izanen ziren, nahiz eta "gastu araua" ezin den ebaluatu, ez dagoelako erreferentzia balio indardunik.

COVID-19aren pandemiak oso eragin garrantzitsua izan zuen Nafarroako toki entitateen jardueran. Guztizko diru-sarrera arruntak pixka bat jaitsi ziren, jarduera ekonomiko eta sozialarekin zuzenean lotutako diru-sarreraren murrizketa neurri handian konpentsatu zuelako transferentzia arrunten bidezko diru-sarreraren gehikuntzak. Funtzionamendu gastuak murriztu egin ziren, bertan behera gelditu zirelako hainbat jarduera, ekitaldi eta festa. Ondorioz, aurrezki gordina eta garbia aurreko ekitaldikoaren oso antzekoak izan ziren, pandemia gorabehera.

Hitz batez, toki sektore publikoaren 2020ko egoera ekonomiko orokorra saneatua izan zen, eta ez zuen okerrera egin COVID-19aren pandemiaren ondorioz. Zor biziak beherantz jarraitu zuten, eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak gorantz. Biek ere aurreko urteetako hoberako joerari eutsi zioten.

Kontratazio publikoa

Toki entitateek eta haien mendeko entitateek guztira 392 kontratu adjudikatu zituzten, eta horien guztizko zenbatekoa 114,61 milioi izan zen. Kontratuen ehuneko 73 eta zenbatekoaren ehuneko 54 udalei dagokie. Adjudikatutako guztizko zenbatekotik, ehuneko 45 eta 43, hurrenez hurren, zerbitzu eta obra kontratuetakoa da. Ehuneko horietan pisu handia du mankomunitate batek 24,5 milioitan adjudikatutako zerbitzu kontratu batek.

Kontratazio jardueran, COVID-19aren pandemiaren eraginez, kontratuen kopurua ehuneko 22 murriztu da aurreko ekitaldiko aldean.

Kontu-ematea eta aurrekontuak

Oro har, toki entitateek beren kontuak onetsi eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari igortzen dizkiote, baina askotan ez dute egiten legezko epeetan, nahiko atzeratuta baizik. Zehazki, toki entitateen ehuneko 68 eta 53 dira, hurrenez hurren, onesteko eta igortzeko betebeharrak horiek legezko gehieneko epearen barnean bete dituztenak. Nolanahi ere, txosten honen datan jada toki entitateen ehuneko 86k igorri dizkiote beren kontuak Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari.

Aurrekontuari dagokionez, deigarria da toki entitateen ehuneko 23k soilik onetsi dutela aurrekontua ekitaldia hasi baino lehen, eta ehuneko hiruk bakarrik igorri diotela legezko gehieneko epean Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari.

Barne kontrola

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean (aurrerantzean NTAFL) barne kontrolerako ezarritako hiru modalitateei dagokionez, kontu-hartze organoek galde-sortari emandako erantzunen arabera, kontu-hartze eginkizuna nonahi betetzen da, baina beste bi funtzioek askoz ezarpen murriztagoa dute: horri buruzko galderari erantzun dioten kontu-hartze organoetatik

ehuneko 56k eta 42k esan dute, hurrenez hurren, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egiten dutela.

Kontu-hartze organoek 188 eragozpen-ohar egin dituzte, eta horietatik 172tan azaldu da ukitutako zenbatekoa, zeinak 5,06 milioi egiten baitu, guztira. Zenbatekoa kontuan harturik, eragozpen-oharrek gehien ukitutako arloa kontratazio publikoa da (guztizkoaren ehuneko 86), eta ondoren dirulaguntzena eta langileriarena.

Aipatu beharra dago Nafarroan ez dela erregelamenduz garatu barne kontrolaren araubide juridikoa, Estatuan bezala, non apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua onetsi baitzen, toki sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

Konparazio-azterketa

Biztanleria tarte desberdinetako Nafarroako udalen konparazio-azterketak erakusten duenez, Iruñean izan ezik, udalerrria zenbat eta handiagoa izan orduan eta txikiagoak dira diru-sarrera arruntak, funtzionamendu gastuak eta aurrezki gordina eta garbia biztanle bakoitzeko.

Nafarroako 40.000 biztanletik beherako udalak alderatzen badira EAEkoekin eta Estatukoekin –horiek toki finantzaketarako sistema desberdinak dituzte–, ikus daiteke Nafarroako udalen per capita diru-sarrerak eta gastuak handiagoak direla Estatuko gainerakoekin baino eta txikiagoak EAEkoekin baino. EAEko udalek transferentzien bidez Nafarroakoekin baino zenbateko nabarmen handiagoa jasotzen dute biztanle bakoitzeko; aldiz, Estatuko gainerakoekin Nafarroakoekin duten desberdintasun nagusia da Estatukoekin zuzeneko zergen bitartez diru-sarrera handiagoak jasotzen dituztela biztanleko. Urte arteko azterketaren arabera, EAEko udalen diru-sarrera arruntak jaitsiera Nafarroako udalena eta Estatuko gainerakoena baino nabarmen handiagoa da, finantzaketa sistemetan dituzten desberdintasunen ondorioz. Bestalde, 2020an Nafarroako udalen aurrezki gordinaren eta garbiaren zenbatekoak EAEko eta Estatuko udalenak baino handiagoak dira, hala balio absolutuetan nola diru-sarrera arruntekiko erlazioan.

Kontabilitate- eta aurrekontu-araudia

Nafarroako tokiko kontabilitatea araututa dago Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean oinarrituta –1990eko uztailaren 17ko Ministro Aginduaren bitartez onetsi zen hura–, salbu eta toki entitateen aurrekontu-egiturari dagokiona, hori 2015ean eguneratu baitzen. Ez da araurik eman toki entitatearen eta haren menpeko entitateen kontabilitatearen egoera-orriak bateratzeari buruz.

Bestalde, abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena, 2021eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, eta zenbait aldaketa egin zituen toki entitateen ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketarako prozedurak malgutzeko, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko arauak garatzeko eta tributuen arloko berrikuntza batzuk ezartzeko.

III.2. GOMENDIOAK

Kontuan izanik azaldu diren konklusioak eta aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu batzuk, indarrean dirautenak, honako gomendio hauek egiten ditugu:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari

- *Behar diren lege eta administrazio neurriak onestea erabat burutu dadin Nafarroako Toki Administrazioaren berregituraketa, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean ezarritakoa, kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorra lortzeko.*

- *Tokiko kontabilitatea urgentziaz berritzea eta 2010eko Kontabilitate Publikorako Plan Orokor indardunera egokitzea.*

- *Toki entitateen barne kontrolaren araubide juridikoaren erregelamenduzko garapena onestea, eta kudeaketaren bizkortasuna uztartzea barne kontrolak behar duen zorrotzasunarekin eta kontu-hartze funtzioaren indartzearekin.*

- *Toki entitateen eta horien menpeko entitateen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko metodologiari buruzko arauak taxutzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Toki zerbitzuen kostuak kalkulatzeko sistema bat taxutzea eta hura ezar dadin sustatzea, bai eta kudeaketaren adierazleak ere, horrela beteko baita Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko Legean eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean xedatutakoa.*

- *Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, zeinak argitasunez eta zehaztasunez jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta eduki behar duen informazioa; eredu horrek, halaber, aukera emanen du toki entitateek informazio-betekizunak bete ditzaten.*

- *Informatikako garapen egokiak egitea, toki entitateetako kontu-hartze organoek errazago bete ahal ditzaten Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikotik (aurrerantzean AEFILO) eratortzen diren informazio betebeharrak.*

- *Toki entitateei atxikitako partzuergoen gaineko informazioa sartzeari toki entitateen erregistroan.*

Toki entitateei

- *Kudeaketa ekonomiko-finantzarioan zuhertasun eta erantzukizun fiskalaren printzipioak betetzen jarraitzea gaur egun ere, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko arauetako batzuk etenda egon arren, eta horiei lotutako aldagaien segimendua egiten jarraitzea.*

- *Egiturazko lanpostu guztiak plantilla organikoan sartzeari, eta gutxitzea, deialdi egokien birtartez, toki entitateetako langileen behin-behinekotasun maila handia. Hain zuzen ere, arau hauek bete behar dira: 20/2021 Legea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, eta 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako administrazio publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen ondorioz.*

- *Kontratazio administratiboko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

- *Udal ondasun eta eskubideen inbentario balioetsia eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*

- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintzako hitzarmenen erregistroa ere.*

- *Udalaren barne kontrola egitea, aplikatzekoa den legerian ezarritako hedadurarekin, bere eginkizun hirukoitzaren arabera: kontu-hartzailatza, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.*

- *Toki entitateek beren burua antolatzeko duten ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*

- *Zerbitzu publikoen kostuen metodologia ezartzen jarraitzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*

- *Aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra onestea ezarritako epeetan, eta haien guztien kontuak ematea 15 eguneko epean, onesten direnetik hasita.*

- *Balorazio-ponentziak epean gaurkotzea.*

- *Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea argitaratzea, AEFILOn xedatutakoarekin bat.*

Aurreko txostenetako gomendio hauek bete dira erabat edo neurri batean:

- *Toki ogasunen esparru berri bat onestea, hartan jasotzeko Nafarroako toki entitateei aplikatzen dakizkiela aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren betekizun eta eskakizunak.*

Bete egin da, abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legea onetsi baita, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena.

- *Toki entitateek kontuak emateko duten legezko betebeharra epean betetzen dela bermatzeko tresnak sendotzea.*

Neurri batean bete da, martxoaren 22ko 7/2022 Foru Legea onetsiz, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa. Lege horrek ezartzen du ordainketak atxikiko zaizkiela kontuak ematerakoan atzerapen oso nabarmenak dituzten entitateei.

- *Toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena osatzea, sozietate publikoei, fundazioei eta partzuergo publikoei buruzko informazio osoa gehituz.*

Neurri batean bete da, mankomunitateen menpeko hiru sozietate publikoren datuak dakartzan informazio bateratua erantsi baita.

Fiskalizazio operatiboko lanetako konklusioei eta gomendioei dagokienez, lan espezifikoak direnez, Ganbera honek argitaratutako txostenei lotzen gatzaizkie.

IV. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

IV.1 ANTOLAKETA-EGITURA

Toki sektore publikoa Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera antolatuta dago. Hala, honako hauek dira toki entitateak:

- Udalak: lurralde antolamenduaren oinarritzko toki entitateak.
- Kontzejuak: udalaren dermioaren barrenean kokaturiko toki entitateak, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.
- Ohiturazko elkarteak: Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea, Aralarko Elkarteak, eta TAFLk indarra hartzean herri ondasunen jabe edo administratzaile diren gainerako korporazio tradizionalak.
- Udalen mankomunitateak edo zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- TAFLn aurreikusitako moduan udalez gaindiko tokiko lurralde-entitate gisa eratzten diren eskualdeak.
- Nafarroako toki entitateak eta Foru Komunitateko Administrazioak (NFKA) eratzten ahal dituzten plangintza orokorreko mankomunitateak, toki eskumeneko zenbait zerbitzuren prestazioa koordinatzea xede dutenak.
- Apirilaren 4ko 20/2019 Foru Legeak indarra hartu baino lehenago sortutako administrazio zerbitzuen elkarteak. Lege horrek aldatu egiten ditu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak udalen batasunen eta administrazio barrutien figurak ezabatu ditu, baina lege horren xedapen iragankor batek dio haiei eutsi behar zaiela harik eta eskualdeak eratu, beren eskumenak eta langileak jaso eta dagozkien zerbitzuak emateko prest egon arte. Oraindik ez da eratu inongo eskualderik edo plangintza orokorreko mankomunitaterik.

Foru lege horrek, bestalde, toki partzuergoei toki entitatearen izaera kendu die, eta berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko ahalmen osoa duten entitatetzat jotzen ditu. Administrazio publiko bati atxikiko zaizkio, TAFLn ezarritakoarekin bat.

Honako hau da toki entitateen kopurua, 2020ko abenduaren 31n, aurreko urteetako toki entitateen kopuruarekin alderatuta:

Toki entitatea	2016	2017	2018	2019	2020
Udalak ⁽¹⁾	272	272	272	272	272
Kontzejuak	346	346	346	346	346
Mankomunitateak ⁽²⁾	62	61	61	61	61
Udal batasunak	20	23	22	22	22
Guztira	700	702	701	701	701

⁽¹⁾ 60 dira udal konposatuak.

⁽²⁾ Ezkabarteko eta Olaibarko Langileriaren Mankomunitatea Toki Entitateen Erregistrotik irten da 2021ean, atzeraeraginez, iritzi baitio inoiz ez zuela erregistrora bildu behar. Horregatik, aurreko ekitaldietako datuak ere aldatu egin ditugu.

2020an ez da inolako aldaketarik izan aurreko ekitaldiarekin konparatuta.

2016tik 2020ra bitarteko aldian honako hau da erakunde autonomoen, toki entitate bat jabe bakarra duten merkataritza sozietateen, toki fundazio publikoen eta partzuergoen kopurua:

Entitatea	2016	2017	2018	2019	2020
Erakunde autonomoak	64	63	60	58	56
Merkataritza sozietateak	54	53	57	56	54
Fundazio publikoak	9	8	8	8	8
Partzuergoak ⁽¹⁾	15	17	17	17	17
Guztira	142	141	142	139	135


⁽¹⁾ Egungo partzuergo guztiak sartu dira, txosten honen datara arte bakar bat ere ez delako sailkatu tokikotzat.

Kopuruetan sartu diren erakunde autonomo bat eta zenbait sozietate eta fundazio ez dira ageri Toki Entitateen Erregistroan txosten honen datan, baina Ganbera honek identifikatu egin ditu bere fiskalizazio lanetan.

2020an ez dago jasorik ez erakunde autonomorik ez merkataritza sozietaterik sortu denik. Erregistrotik irten dira bi erakunde autonomo: Ardoi Kirol Patronatua eta Kulturako Udal Patronatua, biak ere Zizur Nagusiko Udalaren menpekoak. Bi sozietate publiko desegin dira: Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL eta Gesterlar Siglo XXI SL.

Ez dago fundazio publiko eta partzuergoen altarik ez baxarik.

Aurreko datuak kontuan hartuta, hona hemen Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2020ko abenduaren 31n:



2020ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako 272 udalen biztanleria –errola ofizialeko datuen arabera, 661.197 biztanle– honela zegoen banatuta:

Biztanleria tarteak	Udalen kopurua	Udalak, guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria 2020-1-1ean	Biztanleria, guztizkoaren gainean (%)
<101	48	17,6	2.921	0,4
101-200	47	17,3	6.723	1,0
201-500	57	21,0	18.198	2,8
501-1.000	37	13,6	26.831	4,1
1.001-2.000	22	8,1	30.566	4,6
2.001-3.000	24	8,8	60.271	9,1
3.001-5.000	16	5,9	64.012	9,7
5.001-10.000	9	3,3	66.825	10,1
10.001-20.000	8	2,9	102.279	15,5
20.001-30.000	2	0,7	41.585	6,3
30.001-50.000	1	0,4	37.042	5,6
50.000 baino gehiago	1	0,4	203.944	30,8
Guztira	272	100	661.197	100

Nabarmentzekoa da Nafarroako udalen ehuneko 70ek (189 udal) 1.000 biztanle baino gutxiago dutela eta, multzo osoan, biztanleriaren ehuneko zortzi osatzen dutela. Bestalde, Iruñak eta 10.000 biztanle baino gehiago dituzten gainerako 11 udalek biztanleriaren ehuneko 58 hartzen dute.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi bezala, biztanle kopuru txikia dutenek giza baliabide eta finantza-baliabide mugatuak izaten dituzte eta ez dute administrazio-egitura egokia eta nahikoa izaten beren eskumenak baliatzeko. Horrek zaildu egiten du zerbitzuak eragin-kortasunez, efizientziaz, ekonomiaz eta kalitatez ematea.

IV.2. TOKI SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO PLANTEATU DIREN LEGE NEURRIAK

2019an Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi zen. Bertan toki antolaketa berri bat diseinatu da, eta arauak onetsi behar dira hura garatzeko eta behin betiko taxuera zehazteko.

Besteak beste, toki finantzaketarako sistema berri bat aurreikusten zen, zeinean Toki Ogasunen Funtza Foru Komunitateko tributu-bilketaren portzentaje finko baten bidez zuzkituko baitzen, eta modulu sistema baten bidez banatu, dirulaguntza finalistek sistema erabili ordez. Horri dagokionez, martxoaren 22ko 6/2022 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duenak, finantzaketa sistema berri bat ezarri du. Bertan, Toki Ogasunen Funtzaren zuzkidura zenbateko finko bat da, urtero eguneratzen dena, eta 7/2022 eta 8/2022 foru legeak arautzen dute haren banaketa (hurrenez hurren transferentzia arruntei eta Toki Inbertsioen Planari buruzkoak dira).

Bestalde, gorago aipatutako Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak toki entitateen mota batzuk kentzen eta beste batzuk sortzen ditu. Hain zuzen ere eskualdeen figura sortzen du; eskualde bakoitza udalen edo Nafarroako Gobernuaren ekimenez sortu behar da, eta horretarako 18 hilabeteko epea ezarri zen foru legean, 2020ko abuztuan bukatu zena. Oraindik ez da eratu inongo eskualderik.

IV.3. 2020an ONETSITAKO ARAUDIA

Nafarroako toki sektore publikoan aplikatzekoak diren arau asko onetsi ziren 2020an, eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz hartutako neurriekin zerikusia dute hein handian. Onetsitako arauen artean, hauek nabarmentzen dira beren garrantziagatik:

- 2/2020 Foru Legea, urtarrilaren 23koa, zeinaren bidez indarraldia luzatzen baitzaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, eta aldaketak egiten baitzaizkio..

- 3/2020 Foru Legea, otsailaren 27koa, toki ogasunek transferentzia arruntan eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuaren parte-hartzearen funtzaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako.

- 22/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

2/2020 eta 3/2020 foru legeek luzatu egin zuten, zenbait doikuntza eginda, toki entitateak finantzatzeko lehengo sistemaren indarraldia, eta sistema hori aplikatzen jarraitu da harik eta aurreko apartatuan aipatu ditugun 6/2022, 7/2022 eta 8/2022 foru legeek indarra hartu duten arte.

22/2020 Foru Legea, berriz, aplikatzekoa izan da jada 2021eko ekitalditik aurrera, eta aldaketa batzuk egin ditu Toki Ogasunei buruzko Foru Legean: prozedurak malgutu egin ditu, toki entitateen ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa bizkortzeko, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren inguruko alderdi batzuk garatu ditu, arlo horretako egungo arau-esparruarekin bat etorritz. Tributuen arloan ere aldaketa batzuk egin ditu, udalek zenbait tributuren gain dituzten ahalak handituz eta negozio kopurua milioi batetik beherakoa denean jarduera ekonomikoen gaineko zergaren salbuespena ezarriz, bai eta toki entitateentzako konpentsazioa ere, salbuespen hori dela eta.

Pandemiarekin zuzenean lotuta, hauek nabarmendu behar ditugu:

- Diputatuen Kongresuaren Erabakia, 2020ko urriaren 20koa, zeinaren bidez aitortzen baita badela ezohiko larrialdi egoera bat, 2020an eta 2021ean arau fiskalak aldi baterako etetea justifikatzen duena.

- 13/2020 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzekoa, Nafarroako Toki Ogasunen parte-hartzearen funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartu behar izan diren ohiz kanpoko neurri urgenteengatik toki entitateek dituzten beharrei erantzuteko.

2020an onetsi diren eta Nafarroako toki sektore publikoaren jarduerari eragiten dioten beste arau batzuen zerrenda dago I. eranskinean.

V. 2020ko EKITALDIARI DAGOZKION FISKALIZAZIO JARDUKETEN LABURPEN-OROTIDAZKIA

Toki esparruan, Ganbera honek finantza- eta legezketasun-fiskalizazioa egin zuen Iruñeko Udalaren 2020ko jarduera ekonomiko-finantzarioari buruz. Haren aurrekontuaren likidazioan aitortutako betebeharrak eta eskubideak 210,38 milioioak eta 226,77 milioioak dira, hurrenez hurren.

Fiskalizazio horizontaleko txostena ere egin du Jurramendiko Mankomunitatearen eta Lekunberri, Lodosa, Ribaforada eta Zangozako udalen langileen ordainsariek eta kontratazioak legeria betetzeari buruz (2015-2020), eta txosten bat, Urdazubiko Udalak 2020ko ekitaldian gomendioak betetzeari buruz.

Fiskalizazio operatiboaren arloan zenbait txosten egin ditu 2020ko ekitaldia denbora-norainokoaren barruan dutenak: “Lekunberriko Udalaren ur hornikuntza eta saneamenduaren zerbitzua” (2017-2020), “Etxeetako eta saltokietako hondakinak, nola hobetu administrazioen arteko koordinazioa kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoa lortzeko” (2020), eta “Administrazio elektronikoren ezarpena Nafarroako 8.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udaletan” (2020-2021).

Fiskalizazioen emaitzak txostenetan jaso, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Ganbera honen webgunean argitaratu ziren.

Jarraian labur azaltzen dira finantza- eta legezketasun-fiskalizazioaren emaitza nagusiak:

- Iruñeko Udalean finantza-auditoretzako iritzia aldekoa izan zen, eta legeria betetzeari buruzko auditoretzako iritzia ere aldekoa, bi alderdi hauetan salbu: zerbitzuen prestazioagatiko gastuak ordaintzea kontratuen gehieneko indarraldia amaituta dagoenean, eta aldez aurreko kontuhartze mugatuak ez betetzea Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoa.

- Jurramendiko Mankomunitatearen eta Lekunberri, Lodosa, Ribaforada eta Zangozako udalen langileen ordainsariek eta kontratazioak legeria betetzeari buruz (2015-2020) egindako fiskalizazio horizontalean iritzi bat eman zen entitate bakoitzarentzat, eta denak aldekoak izan ziren, salbuespen batzuekin. Salbuespen horiek toki sektore publikoari buruzko 2019ko gure txostenean laburbilduta daude.

Finantza- eta legezketasun-gaieetan, hauek izan ziren txostenetan jasotako gomendio nagusiak:

- *Kontratazio prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*
- *Nomina aldez aurretik fiskalizatzea.*
- *Egiturazkoak eta iraunkorrak diren lanpostu guztiak plantilla organikoan sartzea.*
- *Langileen kontratazioan behin-behinekotasuna ahalik gehien murriztea, behar diren deialdiak eginez, araudi indardunak baimentzen duen heinean.*
- *Lanpostuen deialdiak aurreikusitako prozedurekin bat etorritz egitea, enplegu publikorako sarbidean berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak une oro bermatuz, bai eta publikotasunaren printzipioa ere.*
- *Erakunde autonomoen plantilla organikoa onetsi eta argitaratzea.*

Urdazubiko Udalari dagokionez, txostenean jarraipena egin zitzaion 2009ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostenean udal horrentzat jarritako 39 gomendioei. Izan ere, fiskalizazio hartan finantza- eta legezketasun-iritzia aurkakoa izan zen. Txostenean ondorioztatu zen barne kontrola aski hobetu zela kontabilitatearekin eta diruzaintzarekin lotutako zenbait alderditan, baina ezin zela gauza bera esan legezketasunaz. Hortaz, berriz adierazi zen komeni zela neurri egokiak hartzea.

Fiskalizazio operatiboko konklusioei eta gomendioei dagokienez, gai espezifikoak direnez, Ganbera honek horiei buruz argitaratutako txostenei lotzen gatzazkie.

VI. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA

2020ko toki sektore publikoari buruz Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenak toki entitateen eta haien erakunde autonomoen informazio bateratua dakar. Txosten hori 2. eranskinean dago.

Bertan lehenbiziko aldiz aurkezten dira apartatu batean hiru sozietate publikorekin bateratutako datuak. Sozietate hauek dira: Iruñerriko Zerbitzuak SA, Iruñerriko Mankomunitatearen menpekoa; Servicios Técnicos Mancomunados SLU (Sertecma) eta Servicios Técnicos de la Mancomunidad de Montejurra SA (SMSA), biak Jurrmendiko Mankomunitatearen menpekoak. Hiru sozietate horiek zerbitzu mankomunatuak kudeatzen dituzten sozietate publikoen guztizko gastuaren ehuneko 98 egiten dute gutxi gorabehera. 2019ko ekitaldiari buruzko txostenean, datuak SCPSArekin bakkarrak zeuden bateratuta apartatu horretan.

Toki entitateen 2020ko jardueran eragin nabarmena izan dute COVID-19aren pandemiak eta hari erantzuteko hartutako neurri sanitario, juridiko eta ekonomikoek. Hain zuzen ere VI.4 atalean zehazten da nola eragin zioten neurri horiek toki entitateen jarduera ekonomiko-finantzarioari.

VI.1. DIRU-SARRERAK

Jarraian, toki sektore publikoaren diru-sarreraren aurrekontuaren 2020ko betetzeari buruzko laburpena azaltzen da:

(Milioiak)						
Kapitulua	Behin betiko aurreik.	AEG 2020	Diru-sarrerera guztien gainean (%)	Betetakoa (%)	AEG 2020/2019 aldea	2020/2019 aldea (%)
1. Zuzeneko zergak	191,36	198,25	23	104	-1,01	-1
2. Zeharkako zergak	19,48	22,40	3	115	-11,47	-34
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	159,01	153,82	18	97	-15,13	-9
4. Transferentzia arruntak	348,37	372,95	44	107	32,36	10
5. Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	37,99	34,60	4	91	-14,32	-29
Diru-sarrera arruntak	756,21	782,02	91	103	-9,57	-1
6. Inbertsio errealeen besterentzea	16,24	7,93	1	49	-3,09	-28
7. Kapital-transferentziak	69,88	56,59	7	81	-26,92	-32
Kapitaleko diru-sarrerak	86,11	64,52	8	75	-30,01	-32
8. Finantza-aktiboak	93,45	1,39	0	1	-0,96	-41
9. Finantza-pasiboak	22,65	7,39	1	33	4,45	152
Diru-sarrera finantzarioak	116,10	8,78	1	8	3,50	66
Guztira	958,42	855,31	100	89	-36,09	-4

(*) Toki entitateak eta haien menpeko erakunde autonomoak sartu dira, baina ez sozietate publikoak, fundazio publikoak eta partzuergoak.

Diru-sarrerei buruzko 2020rako behin betiko aurreikuspenek 958,42 milioi euro egiten dute, eta ehuneko 89ko betetze maila dute. Diru-sarrera arruntek ehuneko 103ko betetze maila dute. Kapitaleko diru-sarrerak eta finantzarioak, berriz, hurrenez hurren ehuneko 75eraino eta ehuneko zortziraino bete ziren.

Aitortutako eskubide garbiek 855,31 milioi egin zuten. Horietatik ehuneko 91 diru-sarrera arruntak izan ziren (gehienbat transferentziak eta tributuak), eta kapitalekoak ehuneko zortzi izan ziren.

2020ko guztizko diru-sarrerak 2019koak baino ehuneko lau gutxiago izan ziren. Diru-sarrera arruntetan ehuneko bateko jaitsiera dago, transferentzia arruntan 32,36 milioiko gehikuntzak ia osorik konpentsatzen baititu gainerako kapituluetakoko diru-sarreraren jaitsierak. Kapitaleko diru-sarreretan, berriz, ehuneko 32ko beherakada dago, eta arrazoi nagusia kapital-transferentzien bidezko diru-sarreraren murrizketa da, 26,92 milioikoa.

Gutzizko diru-sarreretatik, ehuneko 85 udalei dagokie, ehuneko 13 mankomunitate eta batasunei eta gainerako ehuneko bira kontzejuei. Banaketa hori aurreko ekitaldikoaren antzekoa da.

Banaketan eragin handirik ez badute ere, azpimarratzekoak dira diru-sarreraren urtetik urterako aldaketan udalen, mankomunitateen eta kontzejuen artean dauden desberdintasunak: ehuneko biko, 11ko eta 38ko jaitsiera izan dute hurrenez hurren, eta horrek zerikusia du toki entitate mota bakoitzak diru-sarreraren egitura desberdina izatearekin.

Toki sektore publikoaren 2020ko guztizko diru-sarrerak, gorago aipatutako hiru sozietateekin bateratuta, 933,78 milioioak dira orotara. Hona hemen xehakapena:

(Milioiak)

DIRU-SARRERAK 2020	Sozietateekin bateratu gabe	3 sozietateekin bateratuta		Bateratzearen eragina
		Diru-sarrerak 2020	Diru-sarrera guztien gainean (%)	
1. Zuzeneko zergak	198,25	198,25	21,2	0,00
2. Zeharkako zergak	22,40	22,40	2,4	0,00
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	153,82	218,09	23,4	64,27
4. Transferentzia arruntak	372,95	380,46	40,7	7,51
5. Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	34,60	34,61	3,7	0,01
Diru-sarrera arruntak	782,02	853,81	91,4	71,80
6. Inbertsio errealeen besterentzea	7,93	7,96	0,9	0,04
7. Kapital-transferentziak	56,59	60,47	6,5	3,88
Kapitaleko diru-sarrerak	64,52	68,44	7,3	3,92
8. Finantza-aktiboak	1,39	4,14	0,4	2,75
9. Finantza-pasiboak	7,39	7,39	0,8	0,00
Diru-sarrera finantzarioak	8,78	11,53	1,2	2,75
Guztira	855,31	933,78	100,0	78,47

Hiru sozietateen bateratzea kontuan hartuta, toki sektore publikoaren guztizko diru-sarrerak 933,78 milioioak dira. Bateratzearen eragina 78,47 milioioa da; horietatik ehuneko 82 dagokie tasa, prezio publiko eta beste diru-sarrera batzuei eta ehuneko 15 jasotako transferentziei.

Azpimarratzekoa da toki sektore publikoak transferentzien bidez izandako diru-sarrerak –kontuan harturik toki entitateak, haien erakunde autonomoak eta haiek partaidetza osoa duten sozietate guztiak– funtsean Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik (NAOetatik) datozela, eta Aurrekontu Orokorren betetze datuek, 2020ko ekitaldian, guztira 397,01 milioiko transferentzia arruntak eta kapitalekoak islatzen dituztela, sailkapen funtzional honen arabera:

(Milioiak)

Funtzioa	2020		2020/2019 aldea (absolutua)	2020/2019 aldea (%)
	ABGak NAOetan	Gutzizkoaren gainean (%)		
94. Transferentziak beste administrazio batzuei	265,64	67	20,66	8
32. Hezkuntza	29,61	7	2,39	9
23. Gizarte zerbitzuak eta sustapena	27,81	7	4,66	20
26. Etxebizitza eskuratzea eta sustatzea	27,01	7	2,97	12
45. Azpiegiturak	12,55	3	- 16,25	-56
44. Garraiorako dirulaguntzak	11,35	3	1,12	11
33. Kultura	6,39	2	- 2,89	-31
Gainerakoak	16,64	4	4,23	34
	397,01	100	16,89	4

VI.2. GASTUAK

Jarraian, toki sektore publikoaren gastuen aurrekontuaren 2020ko betetzeari buruzko laburpena azaltzen da:

(Milioiak)

Kapitulua	Behin betiko kredituak	ABG 2020	Gastu guztien gaiten gainean (%)	Betetzea (%)	AEG 2020/2019 aldea	2020/2019 aldea (%)
1. Langile-gastuak	323,74	310,96	38,9	96	12	4
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	298,95	255,79	32,0	86	-27	-10
3. Finantza-gastuak	2,48	1,78	0,2	72	0	9
4. Transferentzia arruntak	86,18	76,43	9,6	89	5	6
Eragiketa arruntak	711,35	644,95	80,7	91	-11	-2
5. Kontingentzia funtsa	0,47	0,00	0,0	0	0	--
Kontingentzia funtsa	0,47	0,00	0,0	0	0	--
6. Inbertsio errealak	199,87	115,49	14,5	58	-67	-37
7. Kapital-transferentziak	9,92	8,10	1,0	82	-9	-52
Kapital-eragiketak	209,78	123,59	15,5	59	-76	-38
8. Finantza-aktiboak	1,63	2,09	0,3	128	1	39
9. Finantza-pasiboak	28,97	28,55	3,6	99	0	-1
Finantza-eragiketak	30,60	30,64	3,8	100	0	1
Guztira	952,21	799,18	100	84	-86	-10

(*) Toki entitateak eta haien menpeko erakunde autonomoak sartu dira, baina ez sozietate publikoak, fundazio publikoak eta partzuergoak.

2020ko ekitaldirako behin betiko kredituak 952,21 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko 84ko betetze maila izan zuten. Gastu arruntek ehuneko 91ko betetze maila dute. Kapitaleko gastuak, berriz, ehuneko 59raino bete ziren, eta finantza-eragiketenak, oso-osorik.

Toki sektore publikoaren gastua 2020an 799,18 milioikoa izan zen. Zenbateko horretatik ehuneko 39 eta 32, hurrenez hurren, langile-gastuei eta ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuei dagokie, eta inbertsio errealena ere nabarmentzen da, guztizko gastuaren ehuneko 15 hartzen baitu.

Guztizko gastua, aurreko ekitaldikoaren aldean, ehuneko hamar murriztu da (86 milioi gutxiago). Arrazoi nagusia da inbertsio errealerako gastua ehuneko 37 murriztu izana (67 milioi gutxiago).

Guztizko gastuetatik, ehuneko 85 udalei dagokie, ehuneko 13 mankomunitate eta batasunei eta gainerako ehuneko bira kontzejuei. Banaketa hori aurreko ekitaldikoaren antzekoa da.

Gastuaren banaketan eragin handirik ez badute ere, azpimarratzekoak dira gastuen urtetik urterako aldaketan udalen, mankomunitateen eta kontzejuen artean dauden desberdintasunak: ehuneko zazpiko, 18ko eta 51ko jaitsiera izan dute hurrenez hurren, eta horrek zerikusia du toki entitate mota bakoitzak diru-sarreraren egitura desberdina izatearekin.

Toki sektore publikoaren 2020ko guztizko gastua, gorago aipatutako hiru sozietateekin batera-tuta, 877,62 milioikoa da orotara. Hona hemen xehakapena:

(Milioiak)

GASTUAK 2020 Kapitulua	Sozietateekin bateratu gabe	3 sozietaterekin bateratuta		
		Gastuak 2020	Gastu guztien gainean (%)	Bateratzearen eragina
1. Langile-gastuak	310,96	342,99	39,1	32,03
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	255,79	288,81	32,9	33,02
3. Finantza-gastuak	1,78	1,78	0,2	0,00
4. Transferentzia arruntak	76,43	76,07	8,7	0,36
Eragiketa arruntak	644,95	709,64	80,9	64,69
5. Kontingentzia funtsa	0,00	0,00	0,0	0,00
Kontingentzia funtsa	0,00	0,00	0,0	0,00
6. Inbertsio errealak	115,49	129,24	14,7	13,75
7. Kapital-transferentziak	8,10	8,10	0,9	0,00
Kapital-eragiketak	123,59	137,33	15,6	13,75
8. Finantza-aktiboak	2,09	2,09	0,2	0,00
9. Finantza-pasiboak	28,55	28,55	3,3	0,00
Finantza-eragiketak	30,64	30,64	3,5	0,00
Guztira	799,18	877,62	100	78,44

Bateratzearen eragina 78,44 milioikoa da. Horietatik ehuneko 42 eta ehuneko 41, hurrenez hurren, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuei eta langile-gastuei dagozkie. Inbertsio errealak, berriz, ehuneko 18 hartzen dute.

Hurrengo taulan gastuaren sailkapen funtzionala ageri da. Eskura dagoen informazioa kontuan harturik, urtetik urterako konparazioan ez dira sartu mankomunitateen menpeko sozietateak, eta, bestalde, aurrean aipatutako hiru sozietateen bateratzea gehitu zaie 2020ko datuei.

(Milioiak)

Funtzioa	Sozietateekin bateratu gabe					3 sozietaterekin bateratuta	
	Zenbatekoa 2019	Zenbate- koa 2020	2020ko guztizko gastuaren gainean (%)	2020/2019 aldea (%)	Alde absolutua	Zenbatekoa 2020	2020ko guztizko gastuaren gainean (%)
Erkidegoaren ongizatea	139,18	105,37	13	-24	-34	168,11	19
Zerbitzu orokorrak	96,25	96,26	12	0	0	107,09	12
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	71,44	75,81	9	6	4	75,81	9
Hezkuntza	73,86	71,68	9	-3	-2	71,68	8
Etxebizitza eta hirigintza	89,06	69,91	9	-22	-19	70,26	8
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	56,03	57,40	7	2	1	57,40	7
Kirola	64,36	57,24	7	-11	-7	57,24	7
Pentsioak	51,92	53,45	7	3	2	53,45	6
Kultura	69,15	44,57	6	-36	-25	44,57	5
Zor publikoa	29,03	29,24	4	1	0	29,24	3
Garraio publikoa	22,66	23,81	3	5	1	23,33	3
Beste batzuk	122,42	114,45	14	-7	-8	119,45	14
Guztira	885,37	799,18	100	-10	-86	877,62	100

2020ko datu bateratuek erakusten dutenez, erkidegoaren ongizateak bildu du gastu bolumen handiena (168,11 milioi, gastu osoaren ehuneko19), eta atzetik daude zerbitzu orokorrak (107,09 milioi, ehuneko 12) eta gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena (75,81 milioi, ehuneko 9).

Konparazio horretan deigarriak dira erkidegoaren ongizaterako eta etxebizitza eta hirigintzarako gastuaren murrizketak, 53 milioi, guztira. Murrizketa horiek jada aipatu dugun inguruabar batekin

lotu behar dira: 2019an inbertsioengatiko gastu ezohikoak jaso ziren, azken urtea izan zutelako 18/2016 Foru Legearen bidez onetsitako 2017-2019 aldiko Toki Azpiegituren Planak eta urriaren 10eko 19/2018 Foru Legearen bidez onetsitako Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Planak. Hain zuzen ere, bi politika horietarako gastuaren urtetik urterako jaitsiera osoa kapitaleko gastuan izan da.

Kulturako gastuaren 25 milioiko beherakada ere nabarmentzen da (ehuneko 36 murriztu da). Hartaz arituko gara IV.4 atalean.

Jarraian, erkidegoaren ongizaterako politikan egindako gastua xehakatzen dugu, politika horrek bildu baitu gastu bolumenik handiena:

(Milioiak)

		Sozietateekin bateratu gabe					3 sozietateekin bateratuta	
		Zenbatekoa 2019	Zenbatekoa 2020	2020ko gutzitiko gastuaren gainean (%)	2020/19 aldea (%)	Alde absolutua	Zenbatekoa 2020	2020ko gutzitiko gastuaren gainean (%)
161	Edateko uraren etxeetako hornidura.	44,50	36,49	5	-18	-8,00	70,59	8
162	Hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua.	36,74	25,68	3	-30	-11,06	42,78	5
165	Argiteria publikoa.	29,46	17,71	2	-40	-11,75	17,71	2
163	Bideak garbitzea.	17,22	17,48	2	1	0,25	17,48	2
160	Estolderia, hondakin urak hustu eta tratatzea.	6,08	3,32	0	-45	-2,76	14,87	2
169	Erkidegoaren ongizaterako beste zerbitzu batzuk.	2,86	2,44	0	-15	-0,42	2,44	0
164	Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.	2,33	2,26	0	-3	-0,07	2,26	0
16	Erkidegoaren ongizatea.	139,18	105,37	13	-24	-33,81	168,11	19

Hiru sozietateen bateratzea jasotzen duten datuetan ikus daiteke politika horretarako gastua etxeak edateko urez hornitzera eta hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendura bideratzen dela batez ere.

VI.3. ADIERAZLEAK

Beheko taulan, toki sektore publikoan gastatutako 100 euroko kopuru bakoitzaren banaketa erakusten dugu, bai eta finantzaketa ere, sozietateen bateratzea kontuan hartu gabe:

Gastuaren izaera	2019	2020	Finantzaketa iturria	2019	2020
Langileak	34	39	Tributu bidezko diru-sarrerak	45	44
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	32	32	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	48	50
Transferentziengatiko gastuak	10	11	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	6	4
Inbertsio errealak	21	14	Inbertsioak besterentzea	1	1
Finantza-zama	3	4	Zorpetzea	-	1
	100	100		100	100

2020an transferentzietatik datoz diru-sarreraren erdiak, eta tributuak dira diru-sarreraren bigarren iturria, ehuneko 44arekin. Urtetik urterako aldaketan ikusten da nola tributu eta ondare bidezko diru-sarreraren ekarpena pixka bat jaitsi eta transferentziek pisu handiagoa hartu duten.

Gastuei dagokienez, langileenak eta ondasun arruntetakoak eta zerbitzuetakoak dira nagusi, ehuneko 39 eta ehuneko 32, hurrenez hurren, eta atzetik inbertsio errealak datoz. Esparru honetan, urtetik urterako aldaketa garrantzitsuena izan da inbertsio errealek pisua galdu dutela eta langile-gastuek zati handiagoa hartzen dutela.

Inbertsioetako gastuaren murrizketa 2019an izandako ezohiko gastu handiari egozten ahal zaio, IV.2 atalean azaldu diren arrazoiak tarteko.

Langile-gastuek zati handiagoa hartu dute, batetik handitu egin direlako (12 milioi gehiago), eta bestetik guztizko gastuak murriztu direlako.

Jarraian, toki entitateen finantza egoeraren adierazle batzuek 2016-2020 aldian zehar izan duten bilakaera ageri da:

(Milioiak)

Adierazleak	Toki entitateak, entitate bakar bat ere bateratu gabe								
	2016	2017	2018	2019	2020	2020/16 aldea (%)	2020/19 aldea (abs.)	2020/19 aldea (%)	2020*
Diru-sarrerak, guztira	765,30	784,48	839,48	891,40	855,31	12	-36,09	-4	933,78
Gastuak, guztira	717,40	758,13	787,98	885,37	799,18	11	-86,19	-10	877,62
Tributu bidezko diru-sarrerak	371,55	368,83	385,04	402,08	374,47	1	-27,61	-7	438,74
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	332	347,39	390,26	424,10	429,54	29	5,44	1	440,93
Funtzionamendu gastuak	598,92	610,52	626,02	653,91	643,17	7	-10,74	-2	707,86
Kapitaleko gastuak	79,69	98,25	125,09	199,42	123,59	55	-75,83	-38	137,33
Aurrekontu-emaitza ez-finantzarioa	78,22	62,70	81,22	31,16	78,00	0	46,84	150	6,84
Aurrezki gordina	123,24	112,17	126,60	137,68	138,84	13	1,16	1	145,95
Finantza-zama	37,59	47,59	35,00	30,54	30,33	-19	-0,21	-1	30,33
Aurrezki garbia	85,41	64,58	91,60	107,14	108,51	27	1,37	1	115,62
Finantza-zamaren indizea	5,23	6,58	4,65	3,86	3,88	-26	0,02	1	3,55
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak (%)	17,15	15,52	16,82	17,39	17,75	4	0,36	2	17,09
Zorpetze-ahalmena (%)	11,92	8,94	12,17	13,53	13,88	16	0,35	3	13,54
Zor bizia**	280,46	234,26	207,63	179,61	137,74	-51	-41,87	-23	137,74
Gastu orokorretarako diru-zaintza-gerakina.	226,99	238,45	250,65	275,17	301,52	33	26,35	10	***

(*) Hiru sozietateekin bateratutako adierazleak.

(**) Toki sektore publiko osoarena, barnean harturik toki entitateak, haien erakunde autonomoak eta haiek % 100eko partaidetza duten sozietate guztiak.

(***) Ez dago eskura adierazle bateratu hori.

Aurreko taulako datuetatik zenbait alderdi nabarmenduko ditugu, toki entitateen 2016-2020 aldiko bilakaerari dagozkionak, mankomunitateen menpeko sozietateak kontuan hartu gabe:

- 2019ko ekitaldiarekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko lau egin dute behera, eta gastuek, berrik, ehuneko hamar egin dute gora. Nolanahi ere, ehuneko 12 eta ehuneko 11 hazi dira 2016tik, hurrenez hurren.

- Diru-sarreraren murrizketaren arrazoi nagusia da murriztu egin direla tributuen bidezko diru-sarrerak -27,61 milioi gutxiago, batez ere tasa, prezio publiko eta beste sarrera batzuen bidezko diru-sarrera txikiagoen ondorioz- eta zeharkako zergak.

- Kapitaleko gastuak 123,59 milioikoak dira. Gehien jaitsi diren gastuak dira, hala zenbaki absolututan (75,83 milioi) nola erlatibotan (ehuneko 38). Kapitaleko gastua, hala ere, 2018koaren pare dago, eta 2016koa baino ehuneko 55 gorago.

- Aurrekoaren ondorioz, 2020an toki sektore publikoak 108,51 milioiko aurrezki garbia eragin zuen, funtzionamendu gastuak eta finantza-zama ordaindu ondoren. Zenbateko hori aurreko ekitaldian lortutakoaren antzekoa eta 2016an lortutakoa baino ehuneko 27 handiagoa da.

- Nafarroako toki entitateen zor bizia, 2020aren amaieran, haien erakunde publiko guztiak eta haiek partaidetza osoa duten sozietate publikoak kontuan hartuta, 137,74 milioikoa zen, hau da, 2019koa eta 2016koa baino ehuneko 23 eta 51 txikiagoa, hurrenez hurren. Joera horrek zerikusi handia du Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eskakizunekin. 2020an 28,55 milioiko zorra amortizatu zen, eta 7,39 milioiko zor berria hitzartu. Zor biziaren batez besteko interes tasa ehuneko 1,51koa da, eta batez besteko mugaeguneratze epea, 8,75 urtekoa.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, alegia, sortutako baliabideen soberakina, geroko ekitaldietan gastuaren aurrekontu-aldaketak finantzatzeko erabiltzen ahal dena, azken urteotako joerari eutsiz, igo egin da eta 301,52 milioikoa izan da 2020aren amaieran. Horrenbestez, ehuneko hamar eta ehuneko 33 hazi da, hurrenez hurren, 2019koaren eta 2016koaren aldean.

VI.4. COVID-19AREN ERAGINA

Eskura dauden datuekin ezin da zenbatetsi pandemiak toki sektore publikoaren finantza egoeran izandako eragina. Izan ere, pandemiarekin lotutako gastuak eta diru-sarrerak kasu askotan ez zaizkie egotzi aurrekontu-aplikazio berariazkoari edo identifikagarriari.

Toki sektore publikoaren kontuak aztertuta eta 10.000 biztanle baino gehiago dituzten herrien kontuetan txertatutako txosten eta oroitidazkiak aztertuta, ondorioztatzen ahal da honako hauek direla COVID-19aren pandemiak toki entitateen egoera ekonomikoan izandako eragin nagusiak:

- Diru-sarrera arruntak pixka bat baino ez dira jaitsi, transferentzia arrunten bidezko diru-sarreen gehikuntzak neurri handian konpentsatu duelako jarduera ekonomiko eta sozialarekin zuzenean lotutako diru-sarreen beherakada.

Toki entitateetan¹, diru-sarrera arruntak 9,57 milioi jaitsi dira (ehuneko bat). Tributuen bidezko diru-sarrerak 27,61 milioi (ehuneko zazpi) jaitsi dira, batez ere, diru gutxiago bildu delako zerbitzuen prestazioari lotutako tasa eta prezio publikoen bidez eta zeharkako zergen bidez (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga). Bestalde, transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak 32,36 milioi (ehuneko hamar) hazi dira, eta horietatik 13,13 milioi Nafarroako Aurrekontu Orokorretako COVID partidetatik datoz², xehakapen honen arabera:

Aurrekontu-partida	ABGak NAOetan
COVID-19a. Funts berezia (13/2020 FL - udal aurrekontuetan izandako inpaktua)	10,5
COVID-19a. Funts berezia (13/2020 FL - hiri garraioaren defizit gehigarria)	1,00
COVID-19a. Larrialdiko laguntzak (8/2020 FL)	0,51
COVID-19a. Etxe gabeko pertsonentzako harrera zerbitzua (8/2020 FL eta azaroaren 12ko 591/2020 Ebazpena, Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiarena)	0,15
COVID-19a. Oinarrizko gizarte zerbitzuak (233/2020 Foru Agindua)	0,98
	13,13

- Funtzionamendu gastuen jaitsiera nabarmena, jarduera, ekitaldi eta festarik ez egitearen ondorioz. Beste gastu batzuen gehikuntzak partez neutralizatu du.

Toki entitateetan³, kulturako gastu arruntak 22,68 milioiko murrizketa izan du. Zenbateko hori 2019ko funtzionamendu gastu guztien ehuneko 3,4 da. Guztizko funtzionamendu gastuak, hala ere, 10,74 milioi (ehuneko bi) baino ez dira murriztu, beste gastu batzuek gora egin dutelako; horien artean langile-gastuak nabarmentzen dira, 12 milioiko igoera izan baitute, neurri handian ordain-sarien eboluzioak eraginda. Horrenbestez, zati bat baino ez litzaieke egotzi behar COVID-19aren ondoriozko gastu gehikuntzei.

- Kapitaleko diru-sarreei dagokienez, pandemiaren kariatz toki entitateek 13,5 milioiko kapital-transferentziak jaso zituzten "Tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako kapital-transferentzien" aparteko funtsetik, zeina uztailaren 1eko 13/2020 Foru Legeak ezarri baitzuen (25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzekoa, Nafarroako toki ogasunen parte-hartzearen funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartu behar izan diren ohiz kanpoko neurri urgenteengatik toki entitateek dituzten beharrei erantzuteko). Zenbateko hori osorik ordaindu zitzaizen toki entitateei, baina finantzatutako inbertsioak 2021eko irailera arte gauzatzen ahal ziren.

¹ Hiru sozietate publikoak bateratu gabeko datuak.

² Denak bideratu dira udaletara hiri garraioaren defizit erantsiari dagokiona izan ezik, horrek mankomunitateak ere hartzen baitzituen. Azken horretatik, Iruñerriko Mankomunitateak 0,99 milioi jaso zituen eta Tuterako Udalak 0,01.

³ Hiru sozietate publikoak bateratu gabeko datuak.

Hala ere, kapitaleko diru-sarrerak 30,01 milioi (ehuneko 32) murriztu dira. Kontuan hartu behar da, ordea, 2019ko datu altua ohiz kanpokoa zela, aurrean adierazi den bezala.

Kapitaleko gastua 75,83 milioi (ehuneko 38) murriztu da, baina 2019ko datu altua ohiz kanpokoa izan zen, lehen azaldutako arrazoiengatik, eta beherakadaren osteko mailak 2018koen parekoak dira. Beraz, murrizketaren zati bat baino ezin zaio egotzi pandemiaren ondorioz inbertsioak gelditu izanari.

Laburbilduz, ekitaldian diru-sarrera eta gastu arruntek izandako bilakaerari esker, toki entitateen aurrezki gordina eta aurrezki garbia aurreko ekitaldikoaren parekoak izan dira, COVID-19aren ondoriozko krisia gorabehera. Kapitaleko diru-sarrerak eta gastuak, berriz, asko murriztu dira. Hala ere, eskura dagoen informazioa eta 2019ko kopuru bereziki altuak ikusita, ezin da zehaztu pandemiaren eraginaren neurria.

VI.5. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK

AEFILOren arabera, Toki Administrazioaren esparruan arau fiskal hauek bete behar dira:

- Aurrekontu-egonkortasuna: finantzatzeko ahalmena izatea, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtuta.
- Gastu araua: ondorio hauetarako konputagarria den gastuaren urtetik urterako aldaketak ez du gainditu behar BPGaren epe ertaineko hazkundearen erreferentziako tasa. Pandemia deklaratu baino lehen, ehuneko 2,9ko hazkunde tasa ezarri zen 2020ko ekitaldirako.
- Zor publikoaren jasagarritasuna: zor biziak, gehiegizko defizitaren prozedurari buruzko protokoloaren arabera kalkulatu, ez du gainditu behar diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorraren jasagarritasuna: hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin du, orokorrean, 30 eguneko muga gainditu.

Hori horrela, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioan ez da Nafarroako "Toki Administrazioa" azpisektorerik azaltzen, aitzitik, toki entitateei eta haien erakunde autonomoei buruzko datuak eskaintzen dira, oro har, eta, zor publikoari dagokionez, toki entitateek partaidetza osoa duten sozietateak ere barnean hartzen dira.

COVID-19aren pandemiak ekarritako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa zela eta, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, 2020ko urrian Diputatuen Kongresuak aparteko larrialdi bat gertatu zela adierazi zuen, Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta AEFILOn ezarritakoarekin bat. Horrenbestez, 2020-2021 aldirako etenda gelditu ziren aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu arauaren helburuak, eta etenaldia luzatuz joan da 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako.

Nolanahi ere, erantzukizun fiskala eta zuhurtzia lagun, komeni da etendako arauak aipatzen dituzten aldagaien bilakaerari ere jarraipena egitea. Hartara:

a) Aurrekontu-egonkortasunaren arauari dagokionez, toki sektore publikoak 87,80 milioiko finantzaketa-ahalmena du, aurreko ekitaldian baino nabarmen handiagoa, beheko taulan xehetasunez azaltzen denez:

	(Milioiak)	
Finantzatzeko ahalmena/beharra	2020	2019
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	78,00	31,16
Doikuntzak:		
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak		
Beste administrazio publiko batzuegandik jasotako transferentziak	(11,66)	(6,23)
	21,46	12,85
Finantzaketa-ahalmena	87,80	37,78

b) Gastu arauari dagokionez, txostenak ez du informaziorik ematen gastu konputagarriaren aldaketa tasari buruz.

c) Zor publikoaren jasagarritasunari dagokionez, sektorearen zor bizia 137,74 milioikoa zen 2020ko abenduaren 31n, hau da, diru-sarrera arrunten ehuneko 18 hartzen zuen; portzentaje hori ehuneko 110eko gehienekoa baino askoz txikiagoa da, eta 2019ko aldean bost puntu egin du behera.

d) Merkataritza-zorraren jasagarritasunaren araua indarrean zegoen 2020an, baina txostenak ez du hari buruzko informaziorik ematen. Hiru hilean behin Ogasun Ministerioak gai horretaz argitaratzen duen informazioan Nafarroako zenbait toki entitateri buruzko datuak bakarrik azaltzen dira (53-58 entitate bitarte, hiruhilekoaren arabera); alegia, Nafarroako toki entitateen ehuneko zortzik baino ez dute igortzen informazio hori. Informazioa eman duten toki entitateak multzoan harturik, ordaintzeko batez besteko epealdia, argi eta garbi, legez ezarritako 30 eguneko gehieneko epea baino laburragoa izan zen urteko lau hiruhilekoetan, eta, zehazki, laugarren hiruhilekoan 12,47 egunekoa izan zen.

VII. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, toki entitateek eta beren menpeko erakundeek 2020. urtean adjudikatutako kontratuak aztertzen dira, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako kontratuen erregistroko informazioaren arabera.

Hona toki entitateek adjudikatutako kontratuen oinarritzko datuak:

(Milakoak)

Kontratu mota	Udalak		Kontzejuak		Batasunak		Mankomunitateak		Toki entitateak guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	148	38.690	5	273	6	434	3	576	162	39.974
Zerbitzuak	83	18.468		-		-	15	25.453	98	43.921
Hornidurak	46	3.156		-	1	43	3	355	50	3.554
Zerbitzu-emakidak	11	1.103		-		-		-	11	1.103
Guztira, oro har	288	61.416	5	273	7	477	21	26.384	321	88.551

Bestalde, toki entitateen menpeko entitateek honako kontratu hauek adjudikatu zituzten:

(Milakoak)

Kontratu mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Partzueargoak		Menpeko entitateak eta partzueargoak, guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak		-	16	9.765		-	16	9.765
Zerbitzuak		-	38	5.660	1	1.923	39	7.583
Hornidurak		-	15	8.709		-	15	8.709
Zerbitzu-emakidak	1	4		-		-	1	4
Guztira, oro har	1	4	69	24.135	1	1.923	71	26.062

2020an toki entitateek, haien menpeko entitateek eta partzuegoek, guztira, 392 kontratu adjudikatu zituzten, eta horien zenbatekoa 114,61 milioi izan zen, guztira.

Udalek izan dute kontratazio jardura biziena, kontratuen ehuneko 73 adjudikatu baitituzte, eta zenbatekoaren ehuneko 54. Atzetik mankomunitateak datoz, kontratuen ehuneko bostarekin eta zenbatekoaren ehuneko 23arekin, nahiz eta portzentaje horietan oso pisu handia izan duen Erriberako Mankomunitateak 24,5 milioitan adjudikatutako zerbitzu kontratu batek, kaleak garbitu eta erraztatzeko zerbitzuenak. Menpeko entitateetan izandako kontratazio jardura ia osorik sozietate publikoei dagokie.

Beheko taulan kontratazio jardura laburbildu da kontratu kopurua eta adjudikazioko zenbatekoa adieraziz, kontratu motaren eta adjudikazio prozeduraren arabera.

(Milakoak)

	Irekia		Mugatua		Negoziatua		Sinplifikatua		Esparru-akordioan oinarritua		Lizit. deialdirik gabe negoziatua		Ez dago jasota*		Guztira	
	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.
Obrak	111	44.515	-	-	-	-	62	4.405	1	41	2	676	2	103	178	49.739
Zerbitzuak	114	50.231	1	10	-	-	10	296	2	808	8	105	2	54	137	51.504
Hornidurak	45	11.560	-	-	1	37	16	431	1	185	2	50	-	0	65	12.263
Zerbitzu-emakidak	11	1.087	-	-	-	-	-	0	-	0	-	0	1	20	12	1.107
Guztira, oro har	281	107.393	1	10	1	37	88	5.133	4	1.034	12	831	5	176	392	114.613

(*) Kontratuen Erregistroan ez da ageri zein adjudikazio-prozedura erabili den.

Obra kontratuak adjudikatutako guztien ehuneko 45 dira, eta zenbatekoaren ehuneko 43 hartzen dute; zerbitzu kontratuei dagozkie adjudikazioen ehuneko 35 eta zenbatekoaren ehuneko 45, baina portzentaje hori erabat baldintzatzen du goian aipatutako 24,5 milioiko kontratuak.


Kontratazio prozedura erabiliena irekia da, kontratuen ehuneko 72 eta adjudikatutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 94 biltzen baitu, eta, ondoren, prozedura sinplifikatua, kontratuen ehuneko 22tan eta zenbatekoaren ehuneko lauan erabilia. Datu horiek 2019koen antzekoak dira.

Bestalde, beheko taulan ikusten ahal da nola kontratazioaren zenbatekoa gehienbat kontratu gutxi batzuen artean banatuta dagoen. Badira 98 kontratu 150.000 eurotik gorako adjudikazio-zenbatekoa dutenak. Kontratu guztien ehuneko 25 izanda, guztizko zenbatekoaren ehuneko 86 hartzen dute. Hain zuzen, 600.000 eurotik gorako adjudikazio-zenbatekoa duten 27 kontratuek, kontratu guztien ehuneko zazpi izanda, adjudikatutako zenbateko osoaren ehuneko 69 hartzen dute.

(Milakoak)

	Obrak		Zerbitzuak		Hornidurak		Zerbitzu emakidak		Guztira	
	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.
> 600.000	15	30.298	9	40.467	3	7.754		-	27	78.518
> 400.000 eta <=600.000	5	2.316	5	2.510	1	508	2	1.061	13	6.395
>150.000 eta <=400.000	34	8.164	18	4.283	6	1.158		-	58	13.605
	54	40.778	32	47.260	10	9.419	2	1.061	98	98.518

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, kontratu kopurua ehuneko 22 jaitsi zen pandemiaren eraginez. Izan ere, pandemiaren ondorioz nabarmen murriztu zen martxotik maiatzera bitartean adjudikatutako kontratuen kopurua, eta hori ez zen konpentsatu urtearen gainerakoan, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez. Bilakaera hori bat dator adjudikatutako guztizko zenbatekoarenarekin, hor ehuneko 15eko jaitsiera baitago, 20 milioitik gorako kontratuen eragina kanpoan utziz gero.



Kontratuen Erregistroan dauden datuen arabera, COVID-19ak toki esparruan ez du larrialdiko tramitazioaren erabileraren areagotze nabarmenik eragin. Soilik zazpi kontraturen larrialdiko tramitazioa dago jasorik erregistroan, eta horietatik hiru bakarrik lotzen ahal dira pandemiarekin; hurren artean 78.870 euroko adjudikazio zenbatekoa dute.

VIII. KONTU-EMATEA ETA AURREKONTUEN ONESPENA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak dioenez –bera aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak ezarritako testuaren arabera–, toki entitateko lehendakariak martxoaren 31 baino lehen onetsi behar du toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen aurrekontuaren likidazioa. Toki entitatearen kontu orokorra, berriz, udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu behar zaio, hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onetsi ahal dezan. Toki entitateek bi dokumentu horiek onetsi eta 15 eguneko epean igorri behar dizkiote NFKAri.

Beheko taulan xehetasunez azaltzen ditugu 2020ko ekitaldiko onespene eta kontu-emate epeak:

Entitate mota	Toki entitateen portzentajea					
	Epean onetsia		Epean igorria		X+1-12-31rako igorria	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Udalak	85	69	71	57	72	71
Kontzejuak	74	68	55	52	57	66
Mankomunitateak	66	61	53	54	53	66
Udalen batasunak	59	64	41	41	55	68
Guztira	77	68	61	53	63	68

Toki entitateen ehuneko 68k epean onetsi zituzten 2020ko kontuak, eta ehuneko 53k legezko gehieneko epearen barruan igorri zizkioten Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari.

Txosten honen datara arte toki entitateen ehuneko 86k igorri dizkiote 2020ko kontuak TADZNri, eta portzentajea ehuneko 91ra igotzen da baldin eta kontu orokorra ez, baina aurrekontuaren likidazioaren espedienteak bai igorri duten entitateak gehitzen baditugu. Honako toki entitate hauek ez diote TADZNri igorri ez 2019ko eta 2020ko ekitaldietako kontu orokorrik ez aurrekontuaren likidazioaren espedienterik:

- Imozko Udala.
- Kontzejuak: Zizur Txikia, Gazolatz, Larraia, Paternain, Undio eta Zarikiegi, Zizurren; Eraso, Etxaleku, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz, Imotzen; Larraiotz eta Untzu, Txulapainen; eta Albiasu, Inbuluzketa, Iturgoien, Labeaga, Lizaso, Murugarren eta Oloritz ere bai.
- Mankomunitateak: Araxesgoieneko Mankomunitatea, Euskara kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea eta Orreaga Kirol Mankomunitatea.

Oro har, toki entitateek beren kontuak onetsi eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari igortzen dizkiote, baina askotan ez dute egiten legezko epeetan, nahiko atzeratuta baizik. Horrela, informazioa ez da une egokian iristen eta garrantzia galtzen du. Ildo horretatik, martxoaren 22ko 7/2022 Foru Legeak, zeinak ezartzen baitu nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa, xedatzen du funtsa banatzerakoan toki entitateei ordainketen zati bat atxiki behar zaiela baldin eta oraindik igorri gabe badaukate bi urte lehenagoko kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioa.

Aurrekontuari dagokionez, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezartzen du toki entitate bakoitzak bere aurrekontu orokor bakarra behin betiko onetsi behar duela hari dagokion ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen, eta onetsi ondoko 15 egunen barruan igorri behar diola NFKAri.

Hurrengo taulan ageri da 2020ko ekitaldiko aurrekontuak zer epetan onetsi eta TADZNri igorri zaizkion.

Entitate mota	Epean onetsia (2019-12-31)	Toki entitateen portzentajea	
		2020-01-23rako igorria ⁽¹⁾	2020ko lehen hiruhilekoan igorria
Udalak	31	6	28
Kontzejuak	16	1	13
Mankomunitateak	28	0	20
Udalen batasunak	23	0	18
Guztira	23	3	20

⁽¹⁾ 15 egun baliodun, 2019-12-31tik aurrera.

Txosten honen datara arte, toki entitateen ehuneko 83k bidali diote TADZNri 2020ko aurrekontuen espedientea.

Aurrekontuak epean onesten dituzten entitateen portzentaje txikia deigarria da, baina are deigarriagoak informazioa TADZNri bidaltzeko atzerapenak, nabarmen luzeagoak baitira aurrekontu-likidazioei eta kontu orokorre dagozkienak baino.

IX. BARNE KONTROLA ETA KONTU-HARTZE ORGANOEK EGINDAKO ERAGOZPEN-OHARRAK**IX.1. ESKATUTAKO INFORMAZIOA IGORTZEKO BETEBEHARRA BETETZEA**

Txostenaren atal honetako informazioaren oinarri gisa hartu dira Ganbera honek udal, mankomunitate eta batasunetako kontu-hartze organoei 2021eko apirilean bidalitako galde-sorta baten bidez jasotako erantzunak. Bertan informazioa eskatu zen toki entitateen 2020ko ekitaldiko barne kontrolari buruz. Kontzejuei ez zitzaien bidali formulario hori, ez daukatelako barne kontroleko eginkizunetan aritzeko gaitutako kontu-hartzaile edo idazkaririk.

2020ko ekitaldiari buruzko galde-sorta bidali zitzaien 354 toki entitateetatik, 269k erantzun zuten, ehuneko 76k, aurreko ekitaldian baino gutxiagok, orduan ehuneko 89k erantzun baitzuten.

IX.2. BARNE KONTROLA

Toki entitateen kudeaketa ekonomikoaren gain kontu-hartze organoak egiten duen barne kontrola Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 240. artikuluan eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 243.-251. bitarteko artikuluetan araututa dago. Arau horietan barne kontroleko hiru modalitate bereizten dira: kontu-hartze funtzioa, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.

Beheko taulan azaltzen dira toki entitateek kontu-hartze funtzioaren eremuan egindako kontrol batzuk:

Toki entitate mota	Erantzunak, guztira		Ordainketaren kontu-hartze formala		Ordainketaren kontu-hartze materiala		Inbertsioak egiaztatzea		Dirulaguntzak egiaztatzea	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Udalak	245	208	200	169	200	163	195	160	199	163
< 1.000 biztanle	165	139	130	109	130	109	134	110	132	108
1.000 < bizt. < 5.000	60	51	54	44	55	41	50	41	52	41
5.000 < bizt. < 10.000	8	6	7	6	7	6	3	2	6	5
10.000 < bizt. < 20.000	8	8	6	7	6	5	5	5	5	5
> 20.000 biztanle	4	4	3	3	2	2	3	2	4	4
Mankomunitateak eta batasunak	59	61	53	53	51	53	46	47	46	49
Guztira	304	269	253	222	251	216	241	207	245	212
Erantzun guztien gainean (%)			83	83	83	80	79	77	81	79

Aipatu behar da Iruñeko Udalak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 248. artikuluan ezarritakoa dela bide, alde aurreko fiskalizazio mugatua ezarri duela, hau da, kreditu egokia eta nahikoa badela eta gastua proposatzen duen organoak eskumena duela bakarrik egiaztatzea.

Barne kontrol ekonomiko-finantzarioan Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak ezarritako beste bi modalitateei dagokienez, galderari erantzun dioten 236 kontu-hartze organoetatik ehuneko 56k eta 42k soilik adierazi dute, hurrenez hurren, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola egiten dutela. Barne kontrolean legez ezarritako hiru modalitateak baliatzen ez dituzten toki entitateen artean, Iruñeko eta Tuterako udalak nabarmentzen dira beren biztanle kopuru handiagatik. Adierazi dute ez dutela egiten ez finantza-kontrolirik ez eraginkortasunaren kontrolirik.

Oro har, kontu-hartze funtzioa bete egiten da eta araudiak eskatutako edukia du. Finantza-kontrolerako eta eraginkortasunaren kontrolerako funtzioak, berriz, gutxiago hedaturik daude. Horren arrazoietakoa bat izan daiteke Nafarroan gai hori gutxi araututa egotea, ez baita erregelamenduz garatu Estatuan bezala, non apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua onetsi baitzen, toki sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak aldatu egin du haren 248. artikulua, eta horrenbestez toki entitate guztietan alde aurreko kontu-hartze mugatua ezarri ahal da 2021etik aurrera. Araubide hori duten gastuei gerora fiskalizazio osoa egin behar zaie, lagin adierazgarri bat harturik. Lege erreforma hori esker toki entitateek kudeaketa bizkortzen ahal dute, baina, barne kontrolak eskaintzen dituen bermeen kalterako izan ez dadin, ezinbestekoa da geroko kontrola egokiro garatu eta ezartzea finantza-kontrolaren esparruan.

IX.3. ERAGOZPEN-OHARRAK

Informazioa eman duten 269 toki erakundeetatik, eragozpen-oharrak egin dira 25 udaletan eta hiru mankomunitatetan; zehazki, 188 eragozpen-ohar, guztira, 5,06 milioiko gastuari eragiten diotenak, hurrengo taulan ageri den bezala:

Toki entitate mota	Entitate kop.		Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik ez	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Udalak	26	25	165	184	4.703.403	4.780.885	6	14
< 1.000 biztanle	6	7	8	13	30.692	209.611	0	1
1.000 < bizt. < 5.000	10	10	80	112	1.522.637	1.956.214	1	5
5.000 < bizt. < 10.000	5	3	36	32	1.724.769	463.413	3	6
10.000 < bizt. < 20.000	2	2	14	6	901.423	1.455.652	0	0
> 20.000 biztanle	3	3	27	21	523.881	695.994	2	2
Mankomunitateak eta batasunak	1	3	3	4	64.827	278.580	0	2
Guztira	27	28	168	188	4.768.229	5.059.465	6	16

Taulan ikus daitekeenez, 1.000 eta 5.000 bitarteko biztanle kopurua duten udaletan egin dira eragozpen-ohar gehien, baina ohartarazi behar da tarte horretako bi udalek bien artean 97 eragozpen-ohar dituztela, 1,58 milioiko gastua ukitzen dutenak.

Honako taula hauetan xehakatu dira eragozpen-oharrek ukitutako kudeaketa arloak eta eragozpen-oharren arrazoiak:

Kudeaketa arloa	Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik ez	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Kontratazioa	98	114	3.905.190	4.349.098	3	5
Langileak	32	56	134.396	305.658	3	9
Dirulaguntzak	23	13	357.455	388.049	0	1
Justifikatzeko ordainketak eta kuxta finkoko aurrerakinak	2	0	191	0	0	
Beste prozedura batzuk	13	0	370.998	0	0	
Finantza-eragiketak	0	0	0	0	0	
Adierazi gabe	0	5	0	16.661	0	1
Guztira	168	188	4.768.229	5.059.465	6	16

Arau-haustea/Arrazoa	Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik gabe	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Kreditu nahikorik eza	21	29	339.995	1.257.933	2	4
Kreditu ezegokia	5	8	78.246	162.910	0	0
Fiskalizaziorik eza	11	7	28.238	11.983	0	4
Egiaztagirietan irregulartasunak egotea	13	5	110.796	73.000	0	0
Funtsezko betekizun edo izapideak ez betetzea	99	122	2.864.717	3.201.997	3	5
Obra, hornidura, erosketa eta zerbitzuen egiaztapen materiala	0	2	0	6.476	0	0
Ordenamendu juridikoaren aurkako beste egintza batzuk	19	9	1.346.237	29.093	1	3
Gastua onesteko eskumenik gabeko organoa	0	6	0	316.074	0	0
Guztira	168	188	4.768.229	5.059.465	6	16

Kontratazio publikoaren arloan biltzen dira eragozpen-oharren ehuneko 61 eta ukitutako zenbatekoaren ehuneko 86, eta atzetik langileen eta dirulaguntzen arloak datoz. Bestalde, eragozpen-oharren arrazoi ohikoenak dira espedientean funtsezko betekizunak edo izapideak falta izatea (ehuneko 65) eta aurrekontu-kreditu nahikorik ez egotea (ehuneko 15).

Beheko taulan, azkenik, ukitutako zenbatekoaren arabera sailkatu dira 2020ko eragozpen-oharrak:

(Euroak)

Diru-zenbatekoaren tartea	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatetsi den diru kopurua, guztira	Batez besteko diru kopurua
1.000 euro bitarte	17	10.448	615
1.001 - 5.000 euro	72	202.235	2.809
5.001 - 10.000 euro	21	162.088	7.718
10.001 - 20.000 euro	18	254.689	14.149
20.000 eurotik gora	44	4.430.005	100.682
Guztira	172	5.059.465	29.415

IX.4. DIRU-SARREREN ARLOKO ANOMALIA NAGUSIAK

Diru-sarrereren arloko zazpi anomaliaren berri eman da, eta 353.631 euroko diru kopurua ukitzen dute; anomalia horietako hiruk guztizko zenbatekoaren ehuneko 87 ukitzen dute eta hirurak udal berari dagozkio. 2020an anomaliak ukitutako guztizko zenbatekoa aurreko ekitaldikoa baino askoz txikiagoa da, orduan 27 anomalia atzeman baitziren, guztira 794.836 euro hartzen zituztenak.

X. KONPARAZIO-AZTERKETA**X.1. NAFARROAKO UDALEN ARTEKO KONPARAZIOA BIZTANLERIA-TARTEEN ARABERA**

Beheko taulan alderatzen diren adierazleetan alde nabarmen batzuk suma daitezke biztanle-tarte desberdinetako Nafarroako udalen artean.

Biztanleria	< 1.000	1.000-5.000	5.000-10.000	10.000-40.000	> 40.000
Udalen kopurua	180	59	9	11	1
Biztanleria osoa	53.009	146.927	66.825	180.906	203.944
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.221	1.079	989	877	1.065
Funtzionamendu gastuak (biztanleko.)	865	822	798	750	912
Finantza-zama (biztanleko)	44	43	30	46	46
Aurrezki gordina (biztanleko)	356	257	191	127	152
Aurrezki garbia (biztanleko)	311	214	161	81	107
Finantza-zamaren indizea (3. eta 9. kapi- tuluak zati diru-sarrera arruntak)	% 4	% 4	% 3	% 5	% 4
Aurrezki gordinaren ehunekoa diru-sa- rreara arruntan gainean (d.s. arr. - funtz. gast. / d.s. arr.)	% 29	% 24	% 19	% 14	% 14
Transferentzia arruntez finantzatutako gastu arruntan ehunekoa	% 62	% 59	% 54	% 54	% 62

(*) UDALEN DATUAK HAIEN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMOEKIN BATERATUTA.

Iruñean izan ezik, bera baita 40.000 biztanletik gorako udalerrri bakarra, udalerrria zenbat eta handiagoa izan orduan eta txikiagoak dira diru-sarrera arruntak, funtzionamendu gastuak eta aurrezki gordina eta garbia biztanleko.

X.2. NAFARROAKO UDALEN, EAEKOEN ETA ESTATUKOEN ARTEKO KONPARAZIOA

Atal honetan, adierazle ekonomiko-finantzarioen multzo bat erabiliz, Nafarroako udalak alderatzen dira Euskal Autonomia Erkidegokoekin eta Estatuko gainerakoekin, zeinek finantzaketa sistema desberdinak baitituzte. Horretarako oinarritzat hartzen da toki sektore publikoaren 2020ko finantza egoerari buruz Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egin-dako txosteneko informazioa.

Nafarroako udalak txikiak direnez, konparazioa homogeneoa izan dadin, 40.000 biztanle baino gutxiago dituzten eta probintziako hiriburu ez diren udalak bakarrik hartu dira (Nafarroan denak, Iruña izan ezik). Hala, honako udalerrri eta biztanleria hauei dagozkien datuak konparatu dira:

Adierazlea	Nafarroa	EAE*	Estatuko gainerakoak*	Guztira
Udalerrien kopurua < 40.000 biztanle	259	174	6.604	7.037
Erreferentziako biztanle ko- puru osoa	447.667	858.530	18.379.497	19.685.694
Batez besteko biztanle kopu- rura	1.728	4.934	2.783	2.797

(*) TADZNren txostena egin zenean Ogasun Ministerioaren webgunean informazioa argitaratuta zeukaten udalak. Euskal Autonomia Erkidegoan ez da Arabako udalik hartu.

Ikus daitekeenez, azterketa 40.000 biztanletik beherako udaletara mugatuta ere, Nafarroako udalen batez besteko biztanle kopurua nabarmen txikiagoa da Estatuko gainerakoena baino, eta are txikiagoa EAEko batezbestekoarekin alderatuta.

Beheko tauletan diru-sarrerak eta gastuak azaltzen dira kapitulu ekonomikoaren arabera eta biztanle bakoitzeko:

DIRU-SARRERAK	Nafarroa		EAE		Estatuko gainerakoak	
	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean
Zuzeneko zergak	316	28,1	312	23,2	423	38,2
Zeharkako zergak	31	2,8	29	2,1	28	2,6
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	148	13,1	203	15,1	160	14,5
Transferentzia arruntak	452	40,2	734	54,6	378	34,2
Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-ahoretamenduak	56	5,0	13	1,0	17	1,6
Eragiketa arruntak	1.002	89,2	1.291	96,0	1.007	91,0
Inbertsio errealak besterentzea	10	0,9	16	1,2	3	0,3
Kapital-transferentziak eta kapitaleko beste diru-sarrera batzuk	96	8,5	31	2,3	73	6,6
Kapital-eragiketak	106	9,4	47	3,5	76	6,9
Finantza-aktiboak	2	0,2	1	0,1	1	0,1
Finantza-pasiboak	14	1,3	6	0,4	23	2,1
Finantza-eragiketak	16	1,4	7	0,5	24	2,2
Guztira	1.124	100	1.345	100	1.107	100

GASTUAK	Nafarroa		EAE		Estatuko gainerakoak	
	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean
Langile-gastuak	396	37,7	453	34,5	406	40,0
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	303	28,8	485	37,0	352	34,7
Finantza-gastuak	3	0,3	1	0,1	6	0,6
Transferentzia arruntak	98	9,3	164	12,5	66	6,5
Eragiketa arruntak	799	76,0	1.103	84,1	830	81,8
Inbertsio errealak	197	18,8	167	12,7	141	14,0
Kapital-transferentziak	11	1,1	11	0,8	4	0,4
Kapital-eragiketak	209	19,9	178	13,6	145	14,3
Finantza-aktiboak	4	0,4	1	0,1	1	0,2
Finantza-pasiboak	40	3,8	29	2,2	38	3,7
Finantza-eragiketak	44	4,2	31	2,3	39	3,9
Guztira	1.051	100	1.311	100	1.014	100

Diru-sareren likidazioan, azpimarratzekoa da bai Nafarroan bai Estatuko gainerakoan diru-sarrera arruntek guztizkoaren ehuneko 90 inguru hartzen dutela, eta EAEn, berriz, ehuneko 96.

Nafarroako udalen eta EAEkoen arteko alde nagusia transferentzia arrunten bidezko diru-sarretan dago: Nafarroan 282 euro gutxiago dira biztanleko Euskal Autonomia Erkidegoan baino. Tasa, prezio publiko eta beste diru-sarrera batzuetan ere alde adierazgarria dago, Nafarroan 55 euro gutxiago baitira biztanleko Euskal Autonomia Erkidegoan baino.

Diru-sarrera arruntak Estatuko gainerakoekin konparatzen direnean, aldiz, desberdintasun nagusia zuzeneko zergei dagokie, Nafarroan 107 euro gutxiago baitira biztanleko Estatuko gainerakoan baino.

Kapital-transferentzien bitartez, Nafarroako udalek EAEkoek baino 65 euro gehiago jasotzen dituzte biztanleko, eta Estatuko gainerakoek baino 23 gehiago.

Jasotako transferentzien bidezko diru-sarretan Nafarroako udalek EAEkoekin dituzten alde nabarmenen arrazoia da, neurri handian, Nafarroan transferentzien zati garrantzitsu bat finalista dela, inbertsioak egiteari lotua, eta EAEn, aldiz, transferentzia gehienak ez direla finalistak eta, beraz, transferentzia arruntzat jotzen direla. Nolanahi ere, Nafarroako transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien guztizko zenbatekoa EAEkoa baino 217 txikiagoa da. Hortik dator, ia osorik, guztizko diru-sareren arteko aldea.

Bestalde, Nafarroako udalen gastu arruntak EAEkoak eta Estatuko gainerakoak baino txikia-
goak dira: 304 eta 31 euro gutxiago, hurrenez hurren. Kapital-gastuetan kontrakoa gertatzen da:
Nafarroan 209 euro dira biztanleko, EAEn eta Estatuko gainerakoetan baino 31 eta 64 euro gehi-
ago, hurrenez hurren.

Hona hemen zenbait adierazle, hiru eremuetarako:

Adierazlea	Nafarroa	EAE	Estatuko gainerakoak	Aldea: Nafarroa/EAE	Aldea: Nafarroa/Estatuko gainerakoak
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.002	1.291	1.007	-289	-5
Funtzionamendu gastuak (biztanleko)	796	1.101	824	-305	-28
Finantza-zama (biztanleko)	43	31	44	12	-1
Aurrezki gordina (biztanleko)	206	190	184	16	23
Aurrezki garbia (biztanleko)	164	159	140	4	24
Zor bizia (biztanleko)	163	114	244	49	-81
Zorpetze maila (zor biziaren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean)	16	9	24	7	-8
Finantza-zamaren indizea (3. eta 9. kapituluak zati diru-sarrera arruntak)	4	2	4	2	0
Aurrezki gordinaren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean (d.s. arr. - funtz. gast. / d.s. arr.)	21	15	18	6	2
Jasotako transferentziak (biztanleko)	548	765	451	-217	97
Transferentzia arruntez finantzatutako gastu arrunten ehunekoa	57	67	46	-10	11
Kapital-transferentziaz finantzatu ez diren inbertsioen ehunekoa	51	81	48	-30	3

Nafarroan funtzionamendu gastuak 796 eurokoak izan ziren biztanleko. Zenbateko hori Estatuko gainerakoan izandakoa (824 euro) baino beheraxeago dago, eta EAEkoa (1.101 euro) baino askoz beherago.

Nafarroako udalek dituzte aurrezki gordinaren eta garbiaren zenbateko handienak ekitaldi honetan, hala datu absolututan nola diru-sarrera arruntekin lotuta.

Beheko taulan adierazle horietako bakoitzaren urtetik urterako aldaketa azaltzen da:

Adierazleen aldaketa, 2020/2019	Nafarroa	EAE	Estatuko gainerakoak
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)*	-30	-107	-24
Funtzionamendu gastuak*	-41	-29	-24
Finantza-zama*	2	4	-37
Aurrezki gordina*	12	-77	0
Aurrezki garbia*	10	-81	37
Zor bizia*	-28	-13	-12
Zorpetze maila (zor biziaren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean)	-2	0	-1
Finantza-zamaren indizea (3. eta 9. kap./diru-sar. arruntak)	0	0	-3
Aurrezki gordinaren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean (d.s. arr. - funtz. gast. / d.s. arr.)	2	-4	0
Jasotako transferentziak*	6	-78	10
Transf. arruntez finantzatutako gastu arruntak (%)	7	-5	3
Kapital-transferentziaz finantzatu ez diren inbertsioak (%)	-6	-3	-5

(*) Euroak biztanleko.

Nafarroako udaletan diru-sarrera arruntek biztanle bakoitzeko 30 euroko murrizketa izan dute 2019ko aldean, hau da, aurreko urteko zenbatekoaren ehuneko hiruko murrizketa. Estatuko gainerakoetan ere antzeko bilakaera izan dute. EAEn, aldiz, diru-sarrera arruntek 107 euroko beherakada izan dute biztanleko, ehuneko zortzikoa. Transferentzien portaeran dago alde horren azalpena. Izan ere, EAEn transferentzia arruntetarako funtsen zuzkidura zerga itunduen bitartez lortutako diru-bilketaren araberakoa da, eta 2020an jada funtsen zuzkiduran islatzen da ekitaldi horretarako aurreikusitako diru-bilketa apalagoa.

Nafarroan funtzionamendu gastuek 41 euroko jaitsiera izan dute biztanleko, ehuneko 4,9koa. Nabarmen handiagoa da Estatuko gainerakoan eta EAEn izandakoa baino (hurrenez hurren, 2,8 eta 2,6).

Horrenbestez, Nafarroan aurrezki gordina 12 euro hazi da biztanleko, eta EAEn, aldiz, 77 euro murriztu, eta Estatuko gainerakoan bere horretan iraun du.

Francisco Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 10ean

*(Ignacio Cabeza del Salvador
Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua)*

1. ERANSKINA. TOKI ENTITATEETAN APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2020an ONETSI ETA NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAN APLIKATZEKOAK DIREN ARAU NAGUSIAK

Txosten honen IV.3 puntuan jasotakoez gain, hona hemen Nafarroako toki sektore publikoan aplikatzeakoak diren beste arau garrantzitsu batzuk:

- 2/2020 Errege Lege-dekretua, 2020ko urtarrilaren 21ekoa, sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloan presako neurriak onesten dituena.
- 7/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19 gaitzaren inpaktu ekonomikoari erantzuteko presako neurriak hartzekoa.
- 8/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako neurri bereziei buruzkoa.
- 11/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoan premiazko neurri osagarriak ezartzen dituena.
- 23/2020 Errege Lege-dekretua, ekainaren 23koa, ekonomia biziberritzeko neurriak onesten dituena energiaren arloan eta beste arlo batzuetan.
- 27/2020 Errege Lege-dekretua, abuztuaren 4koa, toki entitateei aplikatu beharreko finantza-neurri berezi eta presakoei buruzkoa.
- 29/2020 Errege Lege-dekretua, irailaren 29koa, administrazio publikoetako telelanaren arloan eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideen arloan presako neurriak ezartzen dituena COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko.
- 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituena Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.
- 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, zeinaren bitartez alarma-egoera deklaritzen baita COVID-19aren ondoriozko krisi sanitarioko egoera kudeatzeko.
- 5/2020 Foru Legea, martxoaren 4koa, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 6/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena COVID-19aren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena COVID-19aren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 8/2020 Foru Legea, apirilaren 8koa, zeinaren bidez kreditu-gehirri bat ematen baita, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako beharrei erantzuteko.
- 10/2020 Foru Legea, apirilaren 8koa, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duena.
- 14/2020 Foru Legea, irailaren 1ekoa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.
- 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.
- 18/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa..
- 19/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzen duena.

- 21/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina aldatzekoa.
- 22/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
- 1/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 18koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 2/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 3/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 15ekoa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira NFKAren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak.
- 48/2020 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira oinarrizko gizarte zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema.
- 233/2020 Foru Agindua, uztailaren 24koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, irizpi-deak ezartzen dituen martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak araututako aparteko gizarte funtsa esleitzeko, "COVID-19a, Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuetako plantillak indartzea" proiektuari adjudikatua.

2020ko EKITALDIAN NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAN APLIKATZEKOAK DIREN ARAU NAGUSIAK

a) Toki administrazioa eta araubidea

- Espainiako Konstituzioa.
- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (aurrekontuak bigarren ekitaldi baterako luzatu ziren, Ministroen Kontseiluak 2019ko abenduaren 27an ezarritako irizpideen arabera).
- 6/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 1ekoa, premiazko neurriak ezartzen dituen emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko enplegu eta lanaren arloan.
- 8/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako neurri bereziei buruzkoa.
- 14/2019 Errege Lege-dekretua, urriaren 31koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira segurtasun publikoko arrazoiengatik administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan.

- 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 8/2005 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzkoa.
- 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 13/2017 Foru Legea, azaroaren 16koa, osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetako itun sozialak arautzen dituena.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko.
- 12/2018 Foru Legea, ekainaren 14koa, irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoa.
- 4/2019 Foru Legea, otsailaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako.
- 12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako parte-hartze demokratikoari buruzkoa.
- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.
- 20/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea.
- 2/2020 Foru Legea, urtarrilaren 23koa, zeinaren bidez indarraldia luzatzen baitaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, eta aldaketak egiten baitaizkio..
- 3/2020 Foru Legea, otsailaren 27koa, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2020. urterako.
- 5/2020 Foru Legea, martxoaren 4koa, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 6/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituen COVID-19aren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 10/2020 Foru Legea, apirilaren 8koa, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duena.
- 1/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 18koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 84/2017 Foru Agindua, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluan aurreikusitako klausula soziala aplikatzeko modua arautzen duena.

b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1990eko uztailaren 17ko Aginduaren bidez onetsia (ikus 272/1998 FD, Kontabilitate Instrukzio Orokorra, 425. araua).
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.

- 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifei eta jarraibideei buruzkoa.
- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa.
- 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena COVID-19aren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- Irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretua, eta irailaren 21eko 272/1998 eta 273/1998 foru dekretuak; hurrenez hurren, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa, aurrekontu egiturari buruzkoa, eta Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorra eta Kontabilitate Erraztua onestekoak.
- 4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

c) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, honako hauek aldatzekoa: Autonomia-erkidegoak Finantzatzeari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, herri-administrazioen eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzkoa.
- 10/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez, batetik, 2019rako luzatzen baita finantzen aldetik jasagarriak diren inbertsioetarako autonomia-erkidegoen eta toki entitateen superabitaren xedea eta, bestetik, beste neurri batzuk hartzen baitira toki entitateetan gaikuntza nazionala duten langileen eginkizunari dagokionez.
- 11/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoan premiazko neurri osagarriak ezartzen dituena.
- 23/2020 Errege Lege-dekretua, ekainaren 23koa, ekonomia biziberritzeko neurriak onesten dituena energiaren arloan eta beste arlo batzuetan.
- 27/2020 Errege Lege-dekretua, abuztuaren 4koa, toki entitateei aplikatu beharreko finantza-neurri berezi eta presakoei buruzkoa.
- Diputatuen Kongresuaren Erabakia, 2020ko urriaren 20koa, zeinaren bidez aitortzen baita badela ezohiko larrialdi egoera bat, 2020an eta 2021ean arau fiskalak aldi baterako etetea justifikatzen duena.
- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzekoak.

- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusia-rena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioa.

- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

d) Kontratazio administratiboa

- 7/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19 gaitzaren inpaktu ekonomikoari erantzuteko presako neurriak hartzekoa.

- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, kontratu publikoei buruzkoa (2/2018 Foru Legeak indarra hartu zuen egunean jada administrazio klausula partikularren edo baldintza arautzaileen agiriak onetsita zeuzkaten kontratueterako).

- 317/2019 Foru Dekretua, azaroaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen Europako atalaseak eguneratzen dituena.

- 2/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

- 5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

e) Langileak

- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

- 4/2015 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, lan arloan enplegurako lanbide heziketaren sistema presaz erreformatzekoa.

- 2/2020 Errege Lege-dekretua, 2020ko urtarrilaren 21ekoa, sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloan presako neurriak onesten dituena.

- 29/2020 Errege Lege-dekretua, irailaren 29koa, administrazio publikoetako telelanaren arloan eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideen arloan presako neurriak ezartzen dituena COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko.

- 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

- 13/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

- 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako polizia buruzkoa.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.

- 10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak.

- 158/1984 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko Erregelamendua onesten duena (martxoaren 29ko 21/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen).

- 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamendua onesten duena.

- 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duena (maiatzaren 17ko 29/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen).

f) Dirulaguntzak

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.

g) Hirigintza eta beste arlo batzuk

- 7/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, Nafarroako turismoari buruzkoa.
- 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.
- 18/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa..
- 19/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzen duena.
- 21/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina aldatzekoa.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duena.
- 48/2020 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira oinarrizko gizarte zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema.

h) Toki entitate bakoitzaren barne araubidea

- Toki entitateen aurrekontuen exekuzio oinarriak, 2020rako.
- Tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta erabakiak.
- Berariazko hitzarmen kolektiboak.

d) COVID-19arekin lotutako finantzaketa

- 8/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako neurri bereziei buruzkoa.
- 8/2020 Foru Legea, apirilaren 8koa, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako beharrei erantzuteko.
- 13/2020 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzekoa, Nafarroako Toki Ogasunen parte-hartzearen funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartu behar izan diren ohiz kanpoko neurri urgenteen-gatik toki entitateek dituzten beharrei erantzuteko.
- 14/2020 Foru Legea, irailaren 1ekoa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.
- 3/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 15ekoa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 233/2020 Foru Agindua, uztailaren 24koa, Eskubide Sozialetako Kontseilariak emana, irizpi-deak ezartzen dituena martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak araututako aparteko gizarte

funtsa esleitzeko, "COVID-19a, Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuetako plantillak indartzea" proiektuari adjudikatua.

- 591/2020 Ebazpena, azaroaren 12koa, Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoa-ren zuzendari nagusiak emana.

i) COVID-19 araudia

- 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, zeinaren bitartez alarma-egoera deklaritzen baita COVID-19aren ondoriozko krisi sanitarioko egoera kudeatzeko.

- 537/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, zeinaren bidez luzatzen baita COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera.

Errege dekretu horiez gain, COVID-19aren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz arau sorta handi bat aldarrikatu zen. Horien artean, Nafarroako toki sektore publikoaren jardueraren gaineko eragin handienekotzat jo direnak aurreko ataletan jaso dira, gaia dela eta.

